

ELKARRIZKETA: RAFAEL CRISTOBAL • EKARPENA: RAMON MAUDUIT •
GALDEIDAZUE: ELI ALTOLAGIRRE • HEZKIDETZAZ: MASKULINITATEA •
ISTURITZE ETA OTSOZELAIA HARPEAK • ATZEKO ATETIK: EVA ARGIANO

hh
hik hasi

132

4 EURO • 2008KO AZAROA

EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA




GAIA

Eskola eta elikadura

Zer jan, hura izan

GURE HERRIAREN BILAKAERA MUNDUKO HISTORIAN KOKATUA



Euskal Herriko historiaren urrats nagusiak eskaintzen dira atlas honetan. Historiaurretik gaur egunera bitarteko hainbat gertakari ezagutzeko kontakizuna da. Ehunka argazki, marrazki eta mapaz gain, hainbat eskema eta jakingarri agertzen dira gure herriko historiaren ikuspegi orokorra eta argia izan dezagun. Atlasa DBHko gazteei zuzendua bada ere, Euskal Herriko historiaren ikuspegi orokor bat eduki nahi duen edozein pertsonarentzat egokia da.

**Laster kalean
historiari buruzko
"MURGIL"
galdera-erantzunen
jokoa**

aurkibidea



8
gaia

ESKOLA ETA ELIKADURA

aur eta gazteei elikadura ohitura osasungarriak transmititzeak errebiziko garrantzia du. Dieta orekatuaren oinarriak etxean eta eskolan ikas ditzakete, eta gero eta gehiago dira elikadura ohitura osasungarriak bultzatzeko hainbat ikastetxetan abiatzen diren programak eta ekimenak.



16
elkarrizketa

RAFAEL CRISTÓBAL

aur eskola guztiak itxi beharko lirateke Rafael Cristóbal-en iritziz. Baina ez gaizki funtzionatzen dutelako, haien jardunak errikuspena behar duelako baizik. Jarraitu beharreko pedagogiaren inguruan, berriz, ez du zalantzarik: konfiantzaren pedagogia bultzatu beharko litzateke.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ELIKADURA ETA ESKOLA

ZER JAN, HURA IZAN

16 elkarrizketa

RAFAEL CRISTÓBAL

24 esperientziak

Fraisoro ikastetxea

26 ekarpenak

Lehen mailako prebentzio komunitarioa

28 hezkidetzaz

Maskulinitatea. Zer gertatzen da mutilekin?

32 galdeidazue

Zer egin daiteke ikasle etorkinak egoki eskolatzeko? Zer prozesu jarrai daiteke?

Eli Altolagirre

33 berriak

40 nora joango gara?

Isturitze eta Otsozelaia harpeak

Harriak musika bihurtzen diren leku magikoa

42 Atzeko atetik

Eva Argiñano

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANITZA S.A.L. Azaleko irudia: Ibarra Uzturpe ikastolako jangela. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-X-29). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

azaroa

Oteizak ikusi ez duena eta Oinarrizko Hezkuntza Akordioak eskaini dezakeena



Bakoitzak gure txikian, gure eredu onena dela erakutsi nahian xahutzen ditugu gure indar apur gehienak. Altxa ditzagun begiak, eta begira diezaiozun hezkuntzan jorratu beharreko bideari euskal herritar begiez.

Jorge Oteiza eskultorea jaio zela 100 urte bete diren egun berean, Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioak bi urte egin ditu.

Oteizaren ahalegina materia hustutzea izan zen bitartean, Oinarrizko Hezkuntza Akordioak, berriz, euskal hezkuntza esparruan dauden hutsuneak betetzeko saiakera izan nahi du.

Hala ere, sortzean bat egiteaz gain, oinarrizko ideietan ere norabide bera markatzen dutela esan daiteke.

Hala, Oteizak bere pentsamendua garapenean hamaika ekarpen egin dizkio hezkuntzari. Hark bere denboran esanak dira:

“Pertsona haurren baitan egin eta desegiten da. Gaur asko dakigu haur bat nola desegiten denari buruz, baina gutxi dakigu, eta gutxiago asmatzen da, haur bat egiteari buruz, hari bere burua erakitzen eta fabrikatzen uzteari buruz...”

Niregan iraunkorra da haur nintzelarik sakratuenean makurtua eta nahas-

tua izan nintzenaren sentimendua; hau da, norberaren aberria, hizkuntza bera, kendu izana. Markaturik munduratu naute, elbarritua, eta hori, ja, oso zaila da sendatzen... Nik, euskal izatetik beretik euskal izatearen desegitearen ohiko adibidea ordezkatzeko dut”.

Beharbada, Oteizak bere baitan sentitu zuen hezkuntza eskubideak ez zitzaizkiola errespetatu, eta gabezi horren emaitza izan zela, neurri handi batean, bere baitan garatu zen pertsona.

Euskal Herriko Hezkuntza Akordioak euskaldunok ditugun hezkuntza eskubideak zerrendatzen ditu, eta hori historian zehar lehen aldiz gertatu da.

Pertsona orok ditugun eskubideekin batera, herri orok ere baditu hezkuntzarako eskubideak. Eta munduko gainerako herri guztiek bezala, Euskal Herriak ere badu bere hezkuntza sistema antolatzeako eskubidea. Bide horretan ere, Oinarrizko Hezkuntza Akordioak eskaini du bere ekarpena. Aspal-

diko urteetan katramilaturik gabiltzan hainbat korapilo askatzen hasteko ikusmolde berriak, alegia.

Gure proiektuak eskema eta definizio zaharretan eta agortuetan eraikitzen tematu gara. Bakoitzak, bere txikian, bere bidea egokiena eta baliagarriena dela erakutsi nahian gure indarrak xahutuz. Beharrezkoa da, behin goz, begirada jaso eta sareka, ereduak, administratiboki zatitutako errealitate horri herri gisa begiratzea.

Gaur egun Euskal Herrian hezkuntza alorrean dauden ekimenak eta proposamenak begiratu, aztertu eta baloratzeko tresna interesgarria izan daiteke Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa. Oteizak, jada, ezingo du ikusi munduari zabalik dagoen euskal haurra nola egin ezagutzaren gainean egiten ari garen aurrerapenak. Ikus ditzagula guk bere baitan markaturik eta elbarriturik munduratu dituztela sentitzen ez duten pertsonak!

kronika

Itunpeko ikastetxeetako langileek lan baldintza hobekatu dituzte. Bi eskaera nagusi egin dituzte: soldata ikastetxe publikoko langileenarekin parekatzea bata, eta eskola-ordu kopurua bera izan dadila, bestea. Egun, sare publikoko irakasleen soldatarik dagokion % 95 kobratzen dute itunpeko ikastetxeetako langileek, eta lanordu gehiago dituzte. Bigarren Hezkuntzan, esaterako, 22 eskola-ordu eman behar dituzte itunpeko ikastetxeetako irakasleek, eta 18 ordu sare publikokoek. Partaide eta Kristau Eskola, Hezkuntza Sailarekin negoziatzen ari dira eta akordiorik lortu ezean, sindikatuek ez dute baztertu Gabonen aurretik grebara joatea. Joan den maiatzaren 20ko greba egunaren ondoren, aurtengo bigarren greba litzateke, hala egingo balitz.



Berria

EAEko hizkuntza ereduaren erreformarekin bueltara jarraitzen dute alderdi politikoek eta eragileak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hizkuntza ereduaren erreformak zehaztu gabe jarraitzen du. Eusko Jaurlaritza osatzen duen hirukoaren barne desadostasunek bere horretan jarraitzen dute, izan ere, erreforma ikastetxe guztietan aplikatu aurretik, zentro batzuetan frogatu egiteko eskatzen du EAJk, eta gaztelaniak eta atzerriko hizkuntzek tokia izango dutela bermatu nahi dute jeltzaleek.

Bitartean, hainbat gizarte eragilearen kritikak jaso dituzten egunotan Hezkuntza Sailaren proposamenak. Eskolak Euskaldundu-k hizkuntza ereduaren erreforma iruzurra dela salatzen du, eta proiektuan alda-

keta sakonak egiteko eskatu diote Txontxu Camposek gidatzen duen sailari, "hurrengo 25 urteetan eskolak euskalduntzeari ateak itxi diezazkiokeen legea dela" uste baitute. Euskal Herriak Bere Eskolak ekimenak ere kritikatu izan du erreforma, eta Camposi euren iritzia jasotzen duen gutuna helarazi zioten duela egun batzuk. Errefomari eskasa iritzi diote baita ere LAB eta STEE-EILAS sindikatuek. LABek osagai interesgarriak dituela uste duen arren, haien iritziz, erreforma ez da nahikoa hurrengo belaunaldien euskalduntzea bermatzeko. Eta EHAK-k, bere aldetik, "iruzur arriskua" ikusten du erreformaren atzean, izan ere, Ezker Abertzalea legebiltzar taldearen ustetan, erreformak ez du ikasleen euskalduntzea bermatuko.

Desadostasun eta kritika artean, denbora aurrera doa, eta gero eta denbora gutxiago geratzen da proiektua Eusko Legebiltzarrean aurkezteko, izan ere hauteskundeak 2009ko martxoan izanik, abenduan etengo litzateke Legebiltzarren jarduna. Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak legegintzaldia amaitu aurretik egitasmoa Legebiltzarrean aurkeztuko duela esan du, eta lasaitasuna eskatu du.

Hizkuntzaren paradoxa hori da: guk egiten dugula bera eta berak egiten gaituela gu.

Joxe Azurmendi



Diario de Navarra

Heldu den ikasturtean eremu euskaldunera zabalduko dute TIL eredia Nafarroan

Carlos Pérez-Nievas Nafarroako Gobernuako Hezkuntza kontseilariak azaldu duenez, datorren ikasturtean eremu euskaldunera zabalduko dute TIL (hizkuntza tratamendu integrala) eredia, lehen aldiz, euskara eta ingelesa eskainiz. Dereduan gero eta ikasle gehiago matriculatzen dela erakusten duten datuak aurkeztu zituen egun berean eman zuen berria Pérez-Nievasek. Izan ere, aurten 22.054 ikasle ari dira Nafarroan D ereduan ikasten, ikasle guztien laurdena, % 25,52 zehazki. Kopurua iazkoa baino bi dezima altuagoa da beraz, orduan 20.083 ikaslek egin baitzituzten ikasketak D

ereduan, % 23, hain zuzen ere. Gereduan, berriz, nabarmen egin du behera ikasle kopuruak: iaz 50.686 ikasle aritu ziren eta aurten, berriz, 44.925.

Nafarroako Gobernuaren asmoa TIL eredia lurralde osoan ezartzea da. Aurten gaztelania eta ingelesa eskaintzen dituzten lau ikastetxe jarri dituzte eta guztira 14 dira dagoeneko. Kopurua gorantz doa, baina oraingoan, ikasleen % 2,5 baino ez da ari eredu horretan ikasten.

Eremu euskaldunean, Elizondo izango da eredu berria izango duen lehen herria, San Frantzisko Jabier ikastetxe publikoa, zehazki. "Errazagoa" iritzi dio horri kontseilariak, izan ere, haren iritziz "TIL eredia jar-tzerakoan euskarazko ikasgaiak murriztu egin behar dira eta ikastetxearen testuinguruan euskara erabiltzen bada, errazagoa da hori egitea".

Elizondoko San Frantzisko Jabier ikastetxeak, berriz, ez du baieztatu datorren ikasturtean TIL eredia eskainiko duenik. Duela egun batzuk bildu ziren ikastetxeko arduradunak Nafarroako Gobernuako teknikari batekin eta Hezkuntza departamentua gaia eta egoera zein den aztertzen ari da, baina ikastetxeari ez diote, oraingoan, ezer ziurtatu.

Euskararen Erakunde Publikoak zuzendari berria du: Estebe Eiherabide, Seaskako zuzendari ohia. Jean Claude Iriarten lekua hartu zuen Eiherabidek urriaren 16an, Iriart Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusian hezkuntza gaietako arduradun gisa arituko baita aurrerantzean, Baionako egoitzan. 2010. urtea garrantzitsua izango da EEPrentzat, izan ere, elkar-te egitura du, eta urte horretan adostu beharko dute Frantziako estatuak, Akitaniak, Kontseilu Nagusiak, Hautetsien Kontseiluak eta euskal kulturaren aldeko herriarteko sindikatuak, egiturari segida eman edo ez. Estatuaren oniritzia jasotzeko, EEPk orain arte egindako lanaren bilduma aurkeztu nahi du, eta Iriart arduratuko da lan hori egiteaz.

GAIA

Eskola eta elikadura

Zer jan, hura izan





Jaten duguna garel
esaten dute, eta hori hala
izanik, berebiziko garrantzia du egoki jateak. Egunero jaten dugu, beharrezkoa dugu bizirik irauteko, baina, nola elikatzen gara? Ohitura osasungarriak al ditugu? Etxean eta gure eskolatan ohitura osasungarriak bultzatzen al ditugu? Ikasleei eredu egokiak eskaintzen al zaizkie? Elikadura oinarrizkoa dugu, baina sarritan ez diogu behar adina kasurik egiten. Elikadura orekatuak izan behar dituen ezaugarriak ezagutzea eta horiek jarraitzea oinarrizkoa da osasuntsu egoteko, eta haurrek eta gazteek horiek ikasi beharko lituzkete. Eskola leku ezin hobea izan liteke horretako.

G

Elikadura ohitura osasungarriak hartzeak garrantzi handia du

Gero eta gehiago dira haur eta gaztetxoaren artean gainpisua dutenak, eta baita argal egoteko jateari uko egiten diotenak ere. Presaka bizi gara eta horrek ez die gure sabelari eta gorputzari mesederik egiten. Askotan jotzen da aurrez prestatutako jakietara, eta jolas-tokietan eta parkeetan betiko ogitarte-koak *bollicaoei*, *phoskitosei* eta *gusanitoei* pasatu die lekukoa. Horren aurrean, bestelako ohitura osasungarriak izateaz gain (ariketa fisikoa egitea, kasu), beharrezkoa da haur eta gazteak elikadura ohitura osasungarrietan haztea eta hezte.

Gipuzkoan berriki egindako ikerketa batek, Kilogip izenekoak, esaterako, 8 eta 15 urte bitarteko ikasleen bostetik batek gehiegizko pisua edo obesitate duela dio. Arazoak eragin handiago du mutilengan neskegan baino (% 21 eta % 17,3, hurrenez hurren). Era berean, hamar ikasletik bederatzik ez dute behar adina frutarik eta barazkirik kontsumitzen eta haragi, arraultza eta gozo gehiegi jaten dute, baina ez dute beharrezkoa den arrain eta esneki kopururik hartzen. Gainera, adituek egunero bost otordu egitea gomendatzen duten arren, haurrek eta gazteek lau egiten dituzte normalean, hamaiketakorik ez baitute egiten askok eta askok. Barazkiak eta frutak izaten dira, bestalde, haurrek eta gazteek gutxien jaten dituzten elikagaiak.

Datuak kezkatzekoak dira, eta ezinbestekoa da, haurrei eta gazteei denetarik eta egoki jateak duen garrantzia jakinaraztea. Horretarako, beharrezkoa da elikaduraren gaineko heziketa egitea. Etxean eta eskolan elikadura orekatua izateak duen garrantzia transmititzea beharrezkoa da. Ikasgelak elikaduraren gaineko heziketa lantzeko

leku egokiak izan daitezke, eta baita ikastetxeetako jangelak ere, ikasle askok bertan bazkaltzen baitute egunero.

Horrez gain, gero eta gehiago dira elikadura osasungarria bultzatzeko programak jarraitzen dituzten ikastetxeak. Horren adibide da, esaterako, Bihotz Bizi elkarteak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleei gosari osasungarriak egiten irakasteko abian jarri duen ekimena. Zazpigarren urtez abiatu dute aurten, eta hainbat ikaslek egoki gosaltzeko jarraibideak ikasiko dituzte. Elkarte horren arabera, hamar minutu nahikoa dira egoki gosaltzeko eta bost elikagai hartu behar dira: laboreak edo ogia, fruta edo zukua, esnekia edo esnekiren bat, proteinak eta oliba olioak. Astean bitan, berriz, txokolatea, marmelada edo kakaoa jan daitezke.

Jarraibide errazak dira, eta haurrak eta gazteak pixkanaka-pixkanaka ohiturak aldatzen joatea da helburua, guztiak osasuntsu egon daitezten.



Dietistarekin solasean

Arantza Lorenzo:

“Elikadura arloko heziketa ezinbestekoa dela uste dut”

Arantza Lorenzo dietista da, baina eskoletan ere aritzen da lanean, heziketa berezian, eta haur horiekin jangela egotea egokitu zaionez, gertutik ezagutzen du Euskal Herriko ikastetxeetako jangelen funtzionamendua. Orain arte ikusi duena, ez du oso gustuko, izan ere, ez du uste jangelek, orohar, elikadura osasungarriaren ezaggarriak jarraitzen dituztenik. Elikadura osasungarriaren garrantziaz mintzatu gara Arantza Lorenzorekin, haren ustez ez diogu gaiari behar den seriotasunez heltzen, eta elikaduraren gaineko heziketa behar dela dio.


Elikadura osasungarria izatea garrantzitsua da. Askotan hitz egiten da horri buruz, baina zer behar du elikadurak benetan osasungarria izan dadin?

Elikadura osasungarriaren inguruan teoria asko dago, baina ni zientifikoki onartuta dagoen horretan oinarritzen naiz. Zientifikoki frogatu da, elikadurak hiru baldintza bete behar dituela: lehenik, pertsonaren energia beharrak ase behar ditu; bigarrenik, energia hori modu orekatuan eskuratu behar dugu. Energia horren erdia, % 50 eta % 55 artean, karbohidratoek eskaini behar dute (ogia, pasta, arroza, zerealak, patatak...); horiek izan behar dira nagusi gure dietan. % 25-30 koipeetatik eskuratu behar dugu; badira koipe onak (barazki jatorrikoak direnak: oliba olio, ekilore olio, fruitu lehorretan dagoena, eta arrainak duena) eta kaltegarriak (animali jatorrikoak, eta koko e-

ta palma olioak). Energiaren % 15 proteinetatik eskuratu behar dugu; proteinak, animalia jatorriko produktu guztietan eta lekaleetan daude. Azkenik, hirugarren baldintza litzateke, mineral, bitamina eta zuntz beharrak ase behar ditugula. Zuntzak, gure gorputzagarbitzen du. Bitaminak eta mineralak hainbat elikagaitan topa daitezke, bereziki, frutan eta barazkietan. Horiek ez dute

energiarik ematen; bitaminek gorputza erregulatzen dute eta mineralek gure gorputza osatzen dute. Arazoa da, gure dietak askotan behar duguna baino energia gehiago duela, koipe eta azukre gehiegi, eta mineral eta bitamina gutxi. Desoreka hor legoke.

Horiek baldintza teorikoak dira, eta praktikan, nola jan beharko





genuke?

Kopuruak pertsona bakoitzaren arabera zehaztu behar dira, egiten den kirolaren arabera edo norbere gorputzaren konstituzioaren arabera... Dena dela, ogia eguneroko jan behar da, gutxienez barra laurdena, zerealak ere eguneroko jan behar ditugu, patata ere bai eta baita olio, frutak eta barazkiak ere. Haragia, arraina eta arraultza, berriz, bakoitza astean hiruzpalau aldiz. Gozoak oso tarteka jan beharko genituzke, haur eta gazteen kasuan astean behin, eta helduen kasuan, hobe ospakizunetara mugatuko bagenu. Fruitu lehorrak ere onak dira, tarteka, adibidez, haurrei askarian jartzeko. Heste beteak, askarian, astean gehienez lautan jarriko nituzke nik, eta gainerako egunetan gazta, txokolata, irasagarria, latakoko hegaluzea edo antxoak...

Esaten ari zaren hori guztia eskolan ez da irakasten askotan. Informazio hori ikasleei helarazteko beharrik ikusten al duzu?

Bai. Behar izugarria ikusten dut, eta uste dut, bereziki, gurasoei helarazi behar zaiela. Ikasle batzuk txikiak dira oraindik zenbait gauza ulertzeko eta, gainera, etxean beste zenbait ikusten badute, hori jarraitzen dute. Gurasoei elikadura orekatuaren eta osasun-garriaren oinarriak zein diren azaltzea oso garrantzitsua da. Gaur egun asko dira jangelan geratzen diren haurrak eta beharrezkoa da gurasoek zer bazkaldu duten jakitea, zer afaldu behar duten jakitea. Askotan, haragia bazkaltzen dute, eta gero etxean, afaltzeko, haragia jaten dute berriz; hori ez da egokia. Gurasoek adi egon behar dutela uste dut.

Zer ikasi beharko lukete ikasleek elikadurari dagokionez? Zer

jarraibide eman beharko litzazkieke euren elikadurarekin konpromisoa hartzeko?

Nik uste dut, oinarrian, elikadura orekatuaren kontzeptu teorikoa ikasi beharko luketela. Karbohidratoak, proteinak... zer janaritan dauden jakin beharko lukete eta janari bakoitzaren osagarriak ezagutu beharko litzuzkete, dieta antolatzen ikasteko. Adibidez, lekaleak jaten ditugun egunean, aurretik entsalada bat, zopa edo barazki plater bat jatea komeni dela jakitea, eta gauean konbinatzeko errazena arraina dela. Egun berean arraina eta haragia konbinatzen baditugu, proteina maila asko desorekatzen da, proteina gehiegi eta karbohidrato gutxiegi direlako... Ez dugu ohiturarik, eta jendeari zaila egiten zaio aldatzea, baina konbinazio batzuk ikastea, janari bakoitzaren osagaiak zein diren jakitea eta bakoitzak zer funtzio betetzen duen jakitea besterik ez da.

Gero eta gehiago jotzen du jendeak, ordea, jaki prestatu eta eskolan ohitura onak irakatsi arren litekeena da etxean gero horrelakorik ez jarraitzea...

Bai. Nik uste dut egia dela presaka bizi garela, eta sukaldaritzak denbora behar duela, baina, askotan, praktika falta besterik ez da. Sukaldaritzak ez du hainbeste eskatzen, prestatzeko ohitura falta izaten da, sarritan. Dieta planifikatzea garrantzitsua da, hilabeteko plangintza egitea, beti ere malgutasunez, eta antolatuz gero, ez da hain zaila.

Eta hamaiketakoaren eta askariaren poltsan ere, gero eta bollicao gehiago ikusten da, betiko ogitartekoaren kaltetan.

Bai. Ni horrekin beldurtuta nago. Eskoletan eta parkeetan haur asko

ikusten dira eguneroko litxarreriak jaten, *gusanitoak* direla, *bollicaoak* direla... Eta ogitarteko prestatzea ez da lana, sarritan, haurrekin negoziatzeko alferkeria besterik ez da. Haurrak *bollicao* eskatzen dizu, eta eztabaidarik ez izateko, eman egiten diozu. Ogitarteko prestatzeko, ogia zabaldu eta zerbait sartzea nahikoa da; hezteak, ordea, lana eskatzen du eta eztabaidarik ez izateko eta arazorik ez izateko, jende askok errazenera jotzen du. Lehengoan ere ama batek esaten zidan semea edo alaba zerbait eskatu eta eskatu ari zela, eta denbora gutxira ikusi nuen azkenean erosi egin ziola. Hor lana dago, eta borrokatu egin behar da.

Gozokiena etengabeko borroka da haurrekin, eta debekatzea ez da ona. Nola jokatu beharko litzateke?

Negoziatzea eta kalteak erakustea da onena, batez ere gozoki eta gominoekin. Hortzentsat oso kaltegarriak dira eta gorputzerako ere bai. Lehengoan alaba etorri zitzaidan haur batek hortz marroiak dituela esanez, eta egia da, us-telduta ditu, gozoki gehiegi jaten duela. Hortik hasita irakats dezakegu kalteak eragiten dituztela. Debekatu ez, baina asteburu eta mugatu, adibidez, diru kopuru bat jarri eta horrekin zerbait erosteko. Oreka bilatu behar da.

Haurren obesitate kasuek ere, gora egin dute azkenaldian. Ikusten al duzu horrelakorik?

Bai. Nik uste dut hazten ari direla eta arazo nagusia gozoak eta elikadurari buruzko oinarri batzuen ezagutza falta direla. Eskoletan bi muturrak ikusten ditugu maiz: obesitatea alde batetik, eta gehiegi argaltzera eramaten duten elikadura nahasteak, bestetik. Elikadura arloko heziketa ezinbestekoa dela uste dut.

Ibarrako Uzturpe ikastolako jangela Bertako produktuak eta bertan eginak

Jangelari arreta berezia eskaintzen diote Ibarrako Uzturpe ikastolan. Garai batean, kanpoan egindako janaria ematen zieten ikasleei, baina, gaur egun, ikastolak sukaldari propioa du, eta bertan prestatzen dute eguneroko bazkaria. Bertako produktuak erabiltzen dituzte, barazkiak ikastola ondo-ko baserritarrari erosten dizkiote eta erosketak herrian egiten dituzte. Elikadura orekatua eskaintzen saiatzen dira, eta ikasleek, menu batzuekin harrituta geratzen diren arren, gustura bazkaltzen dute jangelan.

300 ikasle inguru ditu Ibarrako Uzturpe ikastolak, eta horietatik herena geratzen da, gutxi gorabehera, jangelan. Ikastola asko handitu da azken bost urteetan, linea bakarra izatetik, bi linea izatera pasaziren, eta horrekin batera, nabarmen handitu zen jangelan gelditzen diren haur kopurua. Zenbait urtetan, osasun proiektua prestatu, eta elikadurari arreta berezia eskaini izan diote, eta bizikidetzaren proiektuarekin lotuta, jangelako giroa zaindu beharra zegoelaz ohartu ziren. Izan ere, Uzturpe ikastolan jangelak lotura zuzena du ikastolako gainerako ekintzekin.

Jangela handitzeak, zenbait aldaketa egiteko aitzakia eman zien eta lehen aldaketa, bazkaria bertan prestatzea izan zen, Ines Oria irakasle eta jangelako koordinatzaileak esan digunez: "Lehen janaria kanpotik ekartzen genuen, baina duela bost urte bertan prestatzen hasi ginen, ez baikeunden

gustura ordura arte izandako esperientziarekin. D'elikatuz zentroarekin jarri ginen harremanetan jangelako zerbitzua hobetzeko, eta haiek informazio saioak eta hitzaldiak antolatu zituzten. Laguntza handia eskaini digute, eta baita ziurtasuna ere. Dietista baten aholkularitzapean hasi ginen, eta eta sukaldariaren aholkuak ere kontuan hartzen ditugu. Urtero egiten ditu proposamenak. Adibidez, iaz, animalien proteina-rik gabeko eguna sartzen hasi ginen, hau da, arrainik eta haragirik gabeko eguna. Aurten, helburua, barazkiak ugaritzea da, ez soilik porrua eta lekak jatea. Haurrekin kostatu egiten da hori, baina mota askotako barazkiak jatea nahi genuke, eta entsaladak sartzen hasi gara". Uzturpeko jangelan, kalitatez-

ko janaria ematen diete ikasleei eta osasuna zainduz aritzen dira, baina, horrez gain, bertako giroa azpimarratu du Inesek: "Jangelak gune atsegina izan behar du, lasaia. Jangela guztietan zarata handia izaten da, eta hemen ere builaka hitz egiten dute, baina gurean, orohar, giro ona dago. Horrek ere garrantzi handia du".

Eguneko barazkiak ikastola ondoan dagoen baserritik eramaten dituzte jangelara, bertako produktuak eta garaian garaikoak erabiltzen saiatzen baitira. Jangelan jarraitzen duten eskema hau da: astean hirutan haragia dago (egun batean gorria, eta bi egunetan txuria), egun batean arraina eta bosgarren egunean, ez arrainik ezta haragirik ere. Egun horretan, entsalada eta arro-





za, edota barazkiak eta makarroiak jaten dituzte, adibidez. "Haurrei kosta egin zitzaien haragirik eta arrainik gabeko egun horretara ohitzea. Etxe askotan ez dago horrelako ohiturarik eta oraindik "Baina, biak?" moduko galderak entzuten ditugu. Izan ere, barazkiak eta ondoren garbantzuak jatea, lehenengo bi plater jatea iruditzen zaie. Baina ongi eta gustura jaten dute", esan digu Inesek. Postrea, berriz, jogurta, fruta eta bertan prestatutakoak izaten dira.

Gurasoei ez diete esaten haurrek jan dutenaren arabera zer afaldu behariko luketen, baina sei urtez azpiko seme-alabak dituzten gurasoei, egunero bidaltzen diete zer moduz bazkaldu duten dioen informazio orria, eta hileroko menuen koadroa bidaltzen diete etxera. Aurten, hezitzaileekin, ikasleekin eta gurasoekin jangelaren inguruko bilerak egiten hasi dira, haien iritziak jasotzeko eta hobetzeko proposamenik baote duten jakiteko. Gurasoei ikasturte hasieran jangelak nola funtzionatzen duen azaltzen diete eta jangelako hezitzaileekin, formazio saioa egiten dute. Ikasleekin, berriz, ikasturte hasieran ikasgela guztietan lantzen dituzte jangelako arauak; jangelan izan behar duten jarrera, hezitzaileekiko izan behar duten jarrera... Horrek guztiak jangelako giroa hobetzen laguntzen die.

Hezitzaileak epe luzerakoak izan daitezen saiatzen dira. "Gurasoak dira, baina zortzi urte baino gutxiagoko haurrik ez dute izan behar, bestela ez du funtzionatzen: haurrak ez du gurasoa hezitzaile gisa hartzen, etxeko ohiturak ikastolara ekartzen dituzte, haurrak ez dira ongi egokitzen eta hezitzaileek ere, ezin dute haien lana ongi bete", aipatu du Inesek.

Baina, jangelan soilik ez, Uzturpe-



ko ikasgeletan ere elikadura osasuntsuaren garrantzia azpimarratzen saiatzen dira. 5. mailatik gorako ikasleekin landu izan dute elikaduraren gaia, eta zenbait urtetan sukaldaritza tailerra ere izan dute. Gurasoentzako hitzaldiak antolatu izan dituzte eta ikasleek Ordi-

ziako D'elikatuz zentroa bisitatu izan dute. Horrez gain, anorexiaren eta bulimiaren gaineko hitzaldiak ematen dizkiete ikasleei eta iaz, gosari osasuntsuak egiteko programan eman zuten izena.

Baratze ekologikoa

Ibaiondo ikastetxea

Baratze ekologikoa hormigoï artean

Gasteizko Ibaiondo ikastetxean baratze ekologikoa egokitu dute. In-gurura begiratuta, errepideak, etxeak eta hormigoia besterik ikusten ez diren arren, natura oasi txiki bat dute ikasleek euren eskura urriaz geroztik. Zadorra Fundazioaren laguntzaz, eta Aritz Soroa baserri eskolak diseinatu-ta, baratze ekologikoa atondu dute eskolako jolastokiaren alboan. Balio pedagogiko handia du baratze ekolo-gikoak, natura errespetatzen ikasteko eta bizitzaren zikloak ezagutzeko ba-lio baitu, besteak beste. Elikadura osa-sungarriagoa ere izango dute hemen-dik aurrera ikasleek, Ibaiondoko jan-gelan bertako baratzeko produktuak prestatuko baituzte. Aritz Soroako Roberto Colinorekin izan ginen bara-tzearen inaugurazio egunean eta hark azaldu zigun zein den baratze ekolo-gikoaren benetako balioa.



Zein da baratze ekologikoaren garrantzia?

Alde batetik, garapen jasangarria bultzatzen dugu, haurrek konposta egingo dutelako etxetik ekarritako materia organikoarekin; beraz, zabor hori ez da ez zabortegira ezta erraustegiren batera joango, zuzenean konposta sortuko dute. Bestalde, nekazaritza ekologiko mota hau muturrekoa da, ez delako ez ongari kimikorik ez pestizidarik erabiltzen. Lurra beti materia organiko geruza batez estalia dago, hemen, belar geruza batez, baina gauza bera egin dezakegu konpostarekin edo etxetik ekarritako materia organikoarekin. Belar geruza hori palatxo batekin altxatzen da, eta horren azpian landatzen dira barazkiak. Izurrik ez dago, aldamenen lorategia dagoelako; lorategi berezia da landare usaingarriak ditu, eta horien bidez, zenbait zomorro eta intsektu erakartzen ditugu. Horiek, barazkiak jan ditzaketen intsektuak eta zomorroak jaten dituzte eta oreka lortzen dugu, kontrol biologi-

koa egiten dugu. Hemen ez dago makinarik, eta aitzurrik ere ez da erabiltzen, lurra zomorroen lanari esker mugitzen delako, eta solte geratzen delako. Belar txarrik ere ez da apenas hazten, eta hazten direnak sustrai eta guzti kentzea, erraza da. Zomorroei esker, gainera, konposta lortzen dugu eta gai organikoaren ziklo osoa ixten da baratzean bertan.

Zer ezaugarri berezi ditu eskola baterako diseinatutako baratze ekologikoak?

Batez ere, ikasturtean zehar landuko dituzte barazkiak, eta, horretarako, neguan negutegia izatea beharrezkoa da, hemen hotz handia egiten duelako. Udan, bestalde, jenderik ez dagoenez, ureztagailuak behar ditugu. Irakasleekin hitz egiten dugu haurrekin baratzea nola landu behar duten azaltzeko.

Formazio ikastaroak egin dituzue, beraz.

Bai. Ikastaroa antolatu dugu bai ira-



Horrelako proiektuek balio pedagogiko handia dute. Non islatzen da hori?

Gure mundua zaindu behar dugu, eta hori urrats bat da. Etxean eta eskolan ikasi behar da, eta eskoletan dauden baratzeek ekologikoak izan behar dute, ohiko baratzeetan ez delako horrelakorik ikasten, kontrakoa baizik. Hemen gainera ez dute ekoizpen berezirik behar, arazorik sortzen bada ez da ezer galtzen... Zer zaindu behar den, eta hori hain garrantzitsua zergatik den ikasten dute. Kontuan izan behar dugu landareek egiten dutena, geuk, zientzia gure eskura izanik ere, ezin dugula egin. Ez dugu landareekiko errespeturik eta hori ikastea beharrezkoa da, bertan bizitza dagoelako. Haurrek gauzen balioa ikasten dute era horretan.



kasleekin eta baita gurasoekin ere, baratze ekologikoa zer den eta zer logika duen ikasteko, eta eta ondoren haiek hori guztia haurrekin lantzeko.

Eta zer alderdi lantzen dituzue ikastaro horietan? Zer da garrantzitsuena?

Garrantzitsuena lurzorua zaindu behar dugula da, lurzorua bizi-bizirik izan behar dugula, eta horrekin, dena doan etortzen da ia-ia. Hemen produktibitatea oso handia da, diru gutxi inbertitu behar da, eta mantenua erraza da. Ez duzu ongarririk behar, gutxi ureztatu behar da, eta barazkien kalitatea oso ona da.

Beste esperientziarik baduzue Bizkaiko ikastetxe batzuetan. Emaitza onak lortu al dituzue?

Bai. Oso onak, eta hemen, Ibaiondon, gainera, baratzea eta jangela lotu nahi dituzte, eta bertatik ateratzen diren produktuak jangelan jango dituzte. Hori guretzat berria da, eta oso interesgarria. Eskola baratzea oso tresna interesgarria da irakasleentzat, curriculumeko hainbat arlo lantzeko aukera ematen duelako; matematikak, natura... Hasieran, beldur pixka bat izaten dute, lan handia

izango dela pentsatzen dutelako, baina gero oso ongi moldatzen dira.



rafael cristóbal

ELKARRIZKETA

Medikuntzan, neurologian eta psikiatrian doktorea. HUHEZIKo irakaslea. Hazitegi proiektuaren sortzailea.

// Gaur egun, haur eskolak itxi beharko lirateke, sistema guztia birpentsatzeko //



rafael cristóbal

E

// Besteen seme-
alabak zaintzen hamar
urte pasatzen
badituzu, motibazioa
ez da bera. 0-3 eta
0-6 etapa baztertua
dago eskola
sistemaren baitan, ez
da kontuan izan
garapenik
emankorrena orduan
gertatzen dela.
Hezkuntza sistema
osoa birpentsatu behar
da: iraganetik gauza
on asko ekarri ditugu
gaur arte, baina
txarrak ere bai.

//

Krisi ekonomikoa guztion ahotan dabilen garaiotan, hezkuntzaren krisiaz hitz egin digu Rafael Cristóbal-ek. Eskola sistema eta batez ere, Haur Hezkuntza eta haurtzaindegiak krisi egoeran ikusten ditu, eta une batez geratu, eta sistema guztia birpentsatu beharko litzatekeela uste du. Ez du esaten haur eskola guztiek gaizki funtzionatzen dutenik, baina hausnarketa egitea beharrezkoa da hairen iritiz.

Era berean, konfiantzaren pedagogia jarraitu behar dela uste du, haurrengan sinetsi behar dela, haurrak berezko gaitasunak dituelako. Hezitzaileen egitekoa horiek lantzen laguntzea izan beharko luke, eta haurren garapena egokia izan dadin, haien eskura bitartekoak jartzeko.

Rafael Cristóbal, medikuntzan, neurologian eta psikiatrian doktorea da. Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean *Garapenaren psikologia* ikasgaia ematen du gaur egun, eta Hazitegi proiektuaren sortzailea da. *“Fundamentos del ser humano. Una psicología para educadores”* izeneko liburuan, pedagogiari buruzko hausnarketa egin du Cristóbalek, eta liburua aitzakia hartuta, pedagogia eta hezkuntzari buruz aritu gara hizketan.



Askotan entzuten da (eta zuk ere hala diozu zure liburuan) elkarren artean kontraesanean dauden korrante pedagogiko asko dagoela eta horrek, anabasa, nahasmena, gaizki-ulertuak... sortzen dituela hezitzaileen artean. Zer gertatzen da, modak gehiegi jarraitzen direla?

Ez da hori. Baina pedagogia korrante humanisten eskuetan egon da, pentsalarien eskuetan, filosofia izan daitekeenaren eskuetan, Freire, Steiner... Eta zergatik gertatu da hori? Psikologia garatu gabe zegoelako. Psikologiak mende bateko bizitza du, eta ordu arte filosofiaren eskuetan egon da. XX. mendearen hasieran bi pertsonak hasi zuten psikologiaren bidea: Freud eta Paulovek. Freud, psikoanilisiaren aita gisa, eta Paulov, psikologia konduktistaren aita gisa. Paulov baina pixka bat lehenago Watson aurkitzen dugu, XIX. mendearen amaieran, eta bide beretik doa. Freudek zientifikoa izan nahi duen psikologia sortzen du, baina filosofiaren eta zientzia enpirikoen artean, erdi bidean geratzen da eta Paulovek bide zientifikoari ekiten dio, egiaztagarria den, enpirikoa eta partziala den bideari. XX. mendean zehar konduktismoa eta psikoanalisi borrokan aritu dira eta pedagogia alde batera eta bestera doa, baina zer gertatzen da psikoanalisiarekin? Hamar adar daude, diziplina filosofikoak direlako. 1950 inguruan diziplina berria sortu zen eta ondoren nazioarteko komunitate zientifikoaren berrespina jasoko duena jaio zen: etologia. Etologiaren figura nagusia Lorenz da, 1973an nobel saria jaso zuena. Haur psikologia irauli duten bi figura daude: Bolvy eta Harlow.

Hori guztia hurrengo urteetan garatzen doa eta 70. hamarkadatik aurrera bada psikologia enpirikoaren oinarri bat (hau da, egiaztagarria), eta pedagogiak hor har dezake oinarri. Baina hori guztia ez da guregana iritsi; ondorioz, korronte asko daude eta hezitzailea nahastuta dago. Horren aurrean, batzuek konduktismora jotzen dute (baina hori arriskutsua da, partziala delako) eta beste batzuek betikoak egitera jotzen dute, baina betikoak jada ez du balio. Liburuan egiaztagarria den psikologia bati buruz aritu naiz, eta horren gainean eraiki daiteke pedagogia. Zer pedagogia? Proiektu pedagogikoa alde batetik, eta proiektu arkitektonikoa, bestetik; hau da, zer egin eta nola egin. Gaur egun haurrari buruz jakin behar ditugun gauzarik garrantzitsuenak bada-kizkigu, eta gurasoak eta hezitzaileak gidatuko dituen pedagogia eraiki dai-

teke. Orain, pedagogia horretan oinarrituta, eskola sistema guztia aldatu behar da, akats asko egiten ari baitira.

Zer akats, adibidez?

Akatsak, familian eta eskolan aurki daitezke. Haurrak lau hilabeterekin ateratzen dira etxetik eta haurtzaindegiak birplanteatu behar ditugu, inoiz ez delako halakorik gertatu.

Zer esan nahi duzu haurtzaindegiak birplanteatu behar direla esatean?

Haurtzaindegiak beharrak bultzatuta etorri dira Europa osoan, emakumea lan merkatura sartzearekin batera, haurrak norbaitek eta nonbait zaindu behar izatetik etorri dira, eta ez da ez ezagutzarik ez denborarik izan haurtzaindegiak zer izan behar duten planteatzeko; etxetik kanpoko taldekako hazkuntza sistemak zer eta nolako

izan behar duen planteatzeko. Ez da lotu etxeko hazkuntza sistemaren antzekoa edo hobea izango den sistemarik sortzea. Mundu naturalean, haur bat egoten da heldu askorentzat (ama, aita, aiton-amonak, izeba-osabak...) eta taldekako hazkuntza sisteman, haur asko daude pertsona heldu bakarrentzat. Haurtzaindegiak sortzen joan dira, eta gobernuen aldetik bada halako politika populistak bat, hainbat eta hainbat haurtzaindegi egin dituztela esanaz. Baina zein? Non? Nolakoak? Bertan haurrak eraikitzen dira ala ez?

Gutxi gorabehera 1980 urtera arte hazkuntza familian egiten zen, oinarrian, eta eskola instrukziorako zen, gauzak irakasteko, batik-bat; beraz, haurraren izakera etxean eta kalean lantzen zen. Baina emakumea lanera sartu zen, lan erritmoak aldatu ziren, eta denbora sozialak antolaketarik gabe





E

// Oinarrizko psikologia irmoa behar da haurrarekin zer egingo dugun, nola egingo dugun eta non egingo dugun ikusteko. Orduan izango dira fidagarriak haur eskolak. Nik ez dut esan nahi denek gaizki funtzionatzen dutenik, baina denbora batez geratu beharko lirateke haur eskolen sistema guztia birpentsatzeko.

//

geratu ziren. Horrekin batera, haurrak hezkuntza sistemaren esku utzi ziren, hezteko eta irakasteko. Eskolak zama handia du, beraz, eta horri aurre egiteko baliabide gehiago behar ditu. Gainera, haurrak, beren hazkuntzaren garairik emankorrenean uzten dira eskolaren esku. Bizitzako lehen urtean gartzen gara, batez ere, eta bost urte izaterako, heldu garaian garenak gara. Gaur egun, garai horretan haurrak eskolan izaten dira eta familiak eta kaleak ez dute lehen egiten zuten lanik egiten. Hezkuntzaren krisia pairatzen ari gara.

Non ikusten dituzu krisi horren zantzuak?

Haurrak inguru tradizional batean hazi izan dira, kulturaren estilo tradizionalei jarraituz, eta gauzak ez ziren zailtzan jartzen; gehienak ongi egiten ziren, eta beste batzuk ez hain ongi. Haurra, lau hilabeterekin, bere gurasoenak ez diren eskuetara joaten denean, balio handiko pertsonen eskuetara joaten da, baina pertsona horiek ez ditu instintuak gidatzen, nahiz eta euren ahalmenak oso onak izan. Besteen seme-alabak zaintzen hamar urte pasatzen badituzu, motibazioa ez da bera. 0-3 eta 0-6 etapa baztertua dago eskola sistemaren baitan, ez da kontuan izan garapenik emankorrena orduan gertatzen dela. Hezkuntza sistema osoa birpentsatu behar da: iraganetik gauza on asko ekarri ditugu gaur arte, baina txarrak ere bai.

Lehen, etxean egoten ginen eskolara joateko garaia heldu arte, eta ongi zaintzen gintuzten. Orain dena teoriak dira, gauzak nola egin

behar diren esaten da, hainbat eta hainbat korrante daude. Guztia hainbeste neurtzeak eta aztertzeak ez al dakar arriskurik?

Bai. Guztiak du arriskua. Oiloen adibidea jarriko dut: inkubagailu batean oiloek erreprodukzioarako dituzten baldintza naturalak lortzea (beroa, mugimendua eta hezetasuna) ezinezkoa da, eta pertsonekin gauza bera gertatzen da: haurrak hazteko inkubagailu baten antzeko ingurune artifizialak sortzeko, hazkuntza giro naturala erreproduzitzeko, asko jakin behar da. Gaur egun, haur eskolak itxi egin beharko lirateke. Guztiak. Etena egin beharko litzateke zer sistema pedagogiko jarraitzen duten, zer irizpide psikologiko jarraitzen duten, zer oinarri psikologikotan oinarritzen diren eta proiektu pedagogiko hori egiteko zer espazio dituzten aztertzeko. Hau da, oinarrizko psikologia irmoa behar da haurrarekin zer egingo dugun, nola egingo dugun eta non egingo dugun ikusteko. Orduan izango dira fidagarriak haur eskolak. Nik ez dut esan nahi denek gaizki funtzionatzen dutenik, baina denbora batez geratu beharko lirateke haur eskolen sistema guztia birpentsatzeko. Eta, gurasoak lanean daudelako hori egin ezin daitekeenez, ahalegin handia behar da eta baliabide ekonomikoak behar dira horri guztiari buelta emateko. Badakigu zer egin behar den. Baina gure hezkuntza sareak behar den moduan egin behar du egin behar den hori.

Beraz, haurtzaindegien ezaugarriak dira birplanteatu behar direnak.

Bai. Hitza bera ere, gatzelaniaz hartzen badugu, "guardería", gorde aditzetik dator, eta horrek asko adierazten du. Haurtzaindegiek haurrak hazteko eta lantzeko lekuak izan behar dute. Askoz ere gehiago inbertitu behar da, zeren, azkenean, diru arazoa da dena; dirua behar da jendearen formazioarako eta zentroak hornitzeko. Ratioak kontuan izan behar dira, eta hezitzaileek aurrera egiteko eta euren lana behar den moduan egiteko duten gaitasuna

aintzat hartu behar da.

Pedagogia eraikitzeko oinarri gisa erabil dezakegun psikologia indartsua badela aipatu duzu. Pedagogia hori, eraikitze bidean al da?

Bai. Pedagogia orokor baterako bidean gaude. Gurasoek haurrak leku batzuetara eraman behar dituzte eta bertan, gauzak haurren osotasuna ezagututa egin behar dira. Pedagogia hori ezagutzen dugu, baina ezartzea falta da, eta orain esan ezin dudana ikas-tetxe batean aplikatzen hasiko gara

aurki; ikastetxea hankaz gora jarriko dugu, eta irakasleen formazioetik hasiko gara lanean.

Zein dira ezartzeko dagoen pedagogia horren ezaugarri nagusiak?

Konfiantzaren pedagogia izan behar du. Haurra potentzialitate handiarekin dator, ez dator ordenagailu baten modura, haren barnean programak instalatzeko. Landare baten modukoa da; artoa ez dugu guk sortzen, kimua dugu eta hazi egiten dugu, landu. Haurraren sinetsi behar da, gurasoek

eta hezitzaileek konfiantza izan behar dute haurraren gain haiek pentsatzen dutena baino gehiago dakielako. Sistema osoak konfiantzan izan behar du oinarri, irakasleak ez daitezela zuzendaritzaren susmopean egon, ez daitezela gurasoen susmopean egon eta gurasoak ere, ez daitezela irakasleen susmopean egon. Era berean, guztiek ez dezatela haurra susmopean izan. Horretarako, nekazarien modukoa izan behar da, lantzen, hazten, jakin behar da eta haurrari agindu gutxi eta konfiantza asko eman behar zaizkio. Haurra ezagutu behar dugu haren ahalmenak sustatzeko eta garatzeko, eta haren bidean, ebazteko prest dagoen objektuak eta egoerak jartzen joateko. Ezagutzan konfiantza izan behar dugu.

Konfiantza horrez gain, haurraren motibazioa bultzatu behar da baita ere, ezta?

Bai, baina haurra ez da motibatatu behar, barrutik dator kio motibazioa, bere kabuz. Eta zentzu horretan, pedagogia mota hau pedagogia anarkistaren bila doa. Denbora izan behar da, eta denbora eskaini. Haurrak, zerbait behar duenean, deitu egiten zaitu, negarrez, esaterako. Gero, esplorazioa hasten denean, haiek bilatzen dituzte gauzak, ikasi nahi dute eta ikastea gustuko dute; arriskutsuak ez diren gauzak eskura jarri behar dizkiegu, eta bilatzen, arakatzan, dena ezagutzera irits litezke, interesa berez dator kielako. Hori gauza naturalei dagokienez. Haien gustuko gaiak landu behar dira eta euren gaitasunetara egokitu. Montagnerrek esaten duen moduan, eskolak, soilik, eskolarik behar ez dutenentzat balio du. Galaxietan motibazioa sortzeko ordea, urruti geratzen den gaia da, baina irakasleak fisikarekin gozatzen badu, gozamina transmitituko du. Beraz, konfiantza behar da, haurrak ezagutu behar ditugu eta gauzeekin gozatu behar dugu. Oso erraza da, baina beste bide batzuk baino nekezagoa, hori bai.

Motibazioa berezkoa dugu, hortaz, eta, nola kudea daitezke



rafael cristóbal



// Gurasoek eta hezitzaileek konfiantza izan behar dute haurarengan haiek pentsatzen dutena baino gehiago dakielako. Sistema osoak konfiantzan izan behar du oinarri, irakasleak ez daitezela zuzendaritzaren susmopean egon, ez daitezela gurasoen susmopean egon eta gurasoak ere, ez daitezela irakasleen susmopean egon. Era berean, guztiak ez dezatela haurra susmopean izan.




emozioak?

Ikerketa enpirikoek diote haurrak eta animalia guztiak beren programa-ekin datozela eta landu egin behar direla. Haurra ere motibazioarekin dator. Eskola sistemari samurtasuna lantzeko, beldurra lantzeko, agresioa lantzeko... eskatzen zaio. Hori lehen kanpogan egiten zen, etxean, eta horrez gain, gauzak irakasteko eskatzen zaio. Eskolak haurren jakin-min naturalari eutsi behar dio, ez besterik, hori berez existitzen delako. Haurra esploratzailea da, 8-9 hilabeterekin dena hartzen hasten da eta etxean gauzak ukitzen utzi behar zaio, mugitzen utzi behar zaio. Hezkuntza sistemak pertsonak komunitatean lantzea, garatzea butzatu behar du. Haurraren kuriositatea lantzen baduzu, haurrak bakarrik ikasiko du, berez kuriositatea duelako. Bere garapen kognitiboari egokitutako objektuak jartzen badizkiogu, bide hori erraztuko diogu. Haurrak, heldua gogotsu ikusten badu, bera ere gogotsu arituko da. Gutxiago hitz egin behar da, gehiago egin eta adibide gehiago eman. Harreman ona baldin badago, ongi, baina haur eskolan harremana hausten bada

eta haurra gustura ez badoa, ez du ikasiko. Eskola porrota lau hilabeterekin hasten da.

Irakasleak gogotsu aritzeaz gain, bada beste arazo bat: ikasle guztiak berdinak izango balira bezala hartzen dira, maiz.

Haurraren erritmo biologikoak, kognitiboak eta emozionalak errespetatuko dituen eskola sistema behar da. Etxean arazoak dituen haur bati eta lasai dagoen bati, ezin diozu gauza bera eskatu. Erritmo biologikoak ere errespetatu behar dira, badira lo asko egin behar duten haurrak eta behar hori ez dutenak ez, adibidez. Haur batek logurea duenean lotara joateko aukera izateko elementuak txertatu behar dira. Eta arreta gehien eskatzen duten ikasgaiak ordu egokietan jarri behar dira, matematikak ezin dira goizeko lehen orduan edo bazkalondoan jarri, haurrek lo hartuko dutelako. Barne-denbora ere errespetatu behar da, horretarako, beste era bateko espazioak behar dira, haurra lasai egon dadin. Bestalde, haur guztiak ez dituzte edukiak era berean barneratzen eta hori ere kontuan





izan behar da; norbere beharretara egokitutako hezkuntza izan behar da, neurrira egindakoa. Horrek ez du esan nahi irakasleei gehiago eskatu behar zaienik, baina ratioak kontuan hartu behar dira eta ikasgela itxien eta mailen sistema hautsi behar da. Ikasturtea errepikatzea katastrofea da haurren autoestiman eta haren egitura sozialean, lagunak beste maila batean daudelako. Eskola sistemak dena birpentsatu behar du ezagutza zientifikoaren argitan.

Espazio fisikoak ere garrantzia du. Zer ezaugarri izan beharko lituzke?

Espazio fisikoa oinarritzkoa da, eta gauzarik merkeena da, inbertsioa hasieran egin behar delako, baina gero ez duelako besterik eskatzen. Haurrak bederatzigarren hilabeterako hiru dimentsio ditu, eta hiru dimentsioko elementuak behar ditu espazioa esploratzeko. Baina espazioak esploratzeko, espazio horiek handiak izan behar dira. Hemen ditugunak bi dimentsioko basamortuak dira, tramankuluren batekin, etxetxoren batekin... Baina hiru dimentsioko espazioak behar dira, handiak, haurra urduri datorrenean as-

ka dadin. Garrantzitsua da baita ere oihartzunik ez egotea, zarata handia sortzen delako eta irakasleak erotu egiten direlako, haurrak asko urduritzen direlako... Lotarako tokiak izan behar dituzte, tentsioak askatzeko tokiak... Haurrak lasaitzen badira, irakaslearentzat taldearekin lan egitea askoz ere errazagoa izango da. Beraz, proiektu arkitektonikoa ezin da proiektu pedagogikotik banatu. Koltxoi moduan jokatu behar dugu hurrekin, askotan haserre daudenean eta gure kontra egiten dutenean, guk heziketaren izenean, zenbait jarrera hartzen ditugu eta ito egiten dugu haien askatzeko beharra, baina behar dutena ez da hori. Gu ere, gaizki baldin bagaude, ez dugu norbaitek errieta egiterik behar, ulertzea eta entzutea baizik. Horretarako koltxoi papera egingo duten espazioak sortu behar ditugu. Eta kanpoko espazio ere garrantzitu da, izan ere, hemen, Euskal Herrian, denbora asko eman behar dugu aterpean euria dela eta. Ez da luxurik behar, baina bai espazio funtzionalak izatea.

Hezkuntza hitza denborarekin okertzen joan dela diozu...

Heztea, haztea, lantzea da eta norberaren onena ateratzea, ez pertsonak manipulatzeko sariak eta zigorrak jasotzen dituzten robotak izan daitezten. Nolabait, otzandutako jende asko dago eta, gero deprimituta eta aspertuta egoten dira. Gaur egun arazorik handiena da, jendeak ez dakiela zer egin bere bizitzarekin. 60 urterekin jende asko deprimituta dago, ez dituztelako landu. Joxe Migel Barandiaran, adibidez, 90 urterekin bere ikerketekin jolasten jarraitzen zuen haurra zen, eta Barandiaranek egin behar ditugu. Heztea sortzea da, norberaren onena ateratzea, eta, konfiantza eta informazio asko ematea; haurrak autoerregulatu egiten dira eta.

Gaur egungo eskola sistemak katastrofe handiak ekar ditzakeela uste du Rafael Cristóbalak, eta jada ekartzen ari dela: "Gazteen indarkeria eta eskola porrota, Europako gobernuen obsesioak dira. Beste bat: gazte askori ezer ez zaie inporta, ez gizakia, ez komunitatea, ez politika... Kontsumorako gizakiak dira. Utopia bokazionalaren porrota bizitzen ari gara, eta porrota dagoen lekuan, mina dago eta mina dagoen lekuan, indarkeria dago. Hori kanpora atera daiteke edo barruan geratu, eta barruan geratzekotan, depresiora jotzen du maiz".

Fraisoro ikastetxea

Landa eremua biziberritzeko prest dauden ikasleak

Zizurkilgo Fraisoro ikastetxea Itsasmendikoi zentroaren barnean dago, landa eta itsasertzeko eremuen prestakuntza, sustapen eta garapen integraleko zentroaren barnean, Derioko eta Arkauteko ikastetxeekin batera. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak kudeatzen ditu guztiak. Fraisoron, erdi mailako bi ziklo eskaintzen dituzte: lorezaintza, alde batetik, eta abeltzaintza, bestetik. Goi mailako zikloa Natura eta paisaia baliabideen kudeaketa da. Experimentaldia azokan izan ziren, euren lanak erakusten.

Lorezaintzan, kanpo lorezaintza eta barnekoa lantzen dituzte Fraisoron: loreekin egindako lanak, espezieen eza-gutza, mekanika... Abeltzaintzari dagokionez, berriz, batez ere behiekin aritzen dira, baina bestelako abereak ere badituzte: ardiak, oiloak... Eta goi mailako zikloan, basogintza eta natur baliabideen kudeaketa lantzen dute, baina lorezaintzari ere arreta berezia eskaintzen diote.

50 ikasletik gora dituzte eskolan, Ane Miren Agirrezabal irakasleak esan digunez: "Gazteak ditugu, ikastetxetik irten eta zuzenean datozenak, baina baditugu zaharragoak ere. Kasu ba-



tzuetan, jendea aspertu egiten da lanean aritu ondoren, eta bi urtez uzten du lana, gure eskolara etortzeko. Kasu horretan, gehienek lorezaintza ikasten dute".

Experimentaldia azokan izan zirenean, hainbat gauza eraman zituzten jendeari erakusteko: zuhaitzak mozteko balio duen makinaren simulagailua, lore lanak, eta baita kontrol biologikoa

Maria Jimenez Mujika

Lorezaintzako ikaslea

Lorezaintza zikloa egiten ari da Maria Jimenez Mujika, eta gustura dabil. Bi urteko zikloa da, eta, lanean aritu ondoren, berriro ikasten hasteko erabakia hartu zuen. Ez du damurik, gustura aritzen da Fraisoron, praktika gehiago egitea gustatuko litzaiokeen arren.

Lorezaintzako ikaslea zara. Zer lantzen duzue ziklo horretan?

Denetik; lorategiak lantzen eta zaintzen ditugu, landareak nola ekoizten diren ikasten dugu, inausketak eta praktikak egiten ditugu. Zuhaitzak



inausteko zuhaitzetara igo behar izaten denez, hori ere ikasten dugu. Hala ere, praktika gehiago egitea gustatuko litzaiuke, teoria asko ematen baitugu.

Nolatan hasi zinen lorezaintza

besteak jaten dituzte; horrela, izurriteak era naturalagoan kontrolatzen dira”, azaldu zigun Ane Mirenek.

Baina ikusteko gehiago ere bazen han. Izan ere, landare horma ikusgarriak ikusgai jarri zituzten Fraisorokoek. Horma horien azpiko aldean ura eta ongariak jartzen dira, eta landareak,

ikasten?

Nik barne diseinua ikasi nuen, baina gehienbat ostalaritzan aritu izan naiz lanean, eta, eskuekin lan egitea gustuko dudanez, lorezaintzak erakarri egin ninduen, eta horretan ari naiz.

Praktikak egiten dituzuela esan duzu. Eskolan bertan egiten dituzue, ala kanpoan?

Bietan. Eskolako praktikak eskolan bertan egiten ditugu; berotegiak daude eskolan, baratzeak ere bai, landareak... Beste praktika batzuk egiteko, ordea, eskolatik irteten gara. Sagardotegia ere badugu, eta irteerak egiten ditugunean, eskolako sagardoa eramaten dugu, opari.

deritzona ere. “Zenbait zomorrok landareek izan ditzaketen izurriteak geldiarazten dituzte, eta, produktu kimikoek alde negatiboa dutenez, gero eta gehiago erabiltzen da kontrol biologikoa. Kontrol biologikoa egiteko, beste intsektu batzuk askatzen dira, etsai naturalak deritzenak, eta intsektu horiek

berri, hormetan. Ikasleek ura gorantz botatzeko eta landare horman dauden landareak ureztatzeko sistema automatizatu bat egin zuten.

Nekazaritza inguru eta lana gain-behera doan arren, bada inguru horiei eusteko prest dagoenik ere. Horren adibide dira Fraisoroko ikasleak.



Lehen mailako prebentzio komunitarioa

Ramon Mauduit: "Hiru urte bete bitartean, haurrak gaitasunak landu behar ditu. Helburua ez da ezagutza, gaitasunak garatzeko baliabidea baita ezagutza"

Hazi-Hezi prebentziorako eta psikoterapiarako zentroko kide da Ramon Mauduit. Psikologoa da, gorputz terapeuta, eta ES.TE.Reko (Reichen Terapiako Espainiako Eskola) psikoterapeuta, prebentzian aditua izateaz gain. Ramon Mauduitek argi du haurrak hezteko arduradun nagusiak gurasoak direla. Irakasleek bide horretan lagun dezakete, ordea, eta guztiak beharko lukete horretarako prestakuntza egokia. Garrantzitsuen haurra errespetatzea da, eta beharrezkoa da haren gaitasunak abian jartzea. Haurrak hiru urte egin bitartean, hezi egiten dela dio Mauduitek, eta ariketa berezia planteatzen du: **ukitu + sentitu = kokatu.**




Prebentzio komunitarioa diozu. Zeren prebentzioa?

Prebentzioari buruz ari garenean, hezte prozesuan haurren gaitasunak ez hondatzeaz ari gara, asaldurak eta oreka txarraren bideak saihestez. Horretarako, garrantzi handikoa iruditzen zaigu gurasoak horretaz jabetzea, eta haurren gaitasunak ez murriztea.

Eta zein dira etxean eta eskolan haurra egoki hezteko eman beharreko pausoak?

Arduradun nagusiak gurasoak izatea da oinarria, haurrekin oinarrizko komunikazioa haiek dutelako. Horri garrantzia ematen bazaio, prozesu horretan kanpoko pertsonak nola barnera ditzakegun aztertzen has gaitzke. Baina, hezte prozesu horretan haurren gaitasunak kolokan daudenez, irakasleek ere parte hartzen dute hurrekin dituzten zailtasun eta arazoak aurkitzeko eta bideratzeko modua bilatzen. Dena den, irakasleek dituzten ezagutzak haurrengan aplikatzeko, egoki-

tu egin behar dira. Aholkuak normalean gurasoentzat izaten dira; lotara joan aurretik masajeak emateko, lehen hila-beteetan komunikaziorako erraztasunak bilatzeko, bai hitzaren bidez, bai kontaktuaren bidez, bai masaje mota batzuen bidez... Eta eskolan, irakasleek ezagutza hori dutenean, hurrekin komunikatzeko baliabideak eskuratzen dituzte. Gurasoek egiten ez duten lana egin behar izaten dute irakasleek askotan, eta haurrekin komunikazio horretan zer modu erabil ditzaketen



irakasten diegu guk, baina haurra errespetatzen eta, gaitasunak lantzen doan neurrian, prozesu horretan laguntzen ere irakasten diegu.

Beraz, lehenik, etxeko giroa landu behar dugu, eta etxean haurraren gaitasunak kontuan hartu behar ditugu. Gaur egun, gurasoek lanera joan behar dutenez eta haurrak oraindik oso txikiak direnez, eskolan hasten direnean, ez dituzte egoera traumatikoak topatu behar; aitzitik, aurretik irakaslearekin kontaktua izan behar dute, eta gurasoek eta irakasleek bidea elkarrekin egin behar dute, haurra irakaslearekin bakarrik geratzen denerako. Horrela, haurrari zertan lagundu behar dion jakingo du irakasleak.

Eta haurarentzat ere, aldaketa mailakatu izango da...

Hori da. Amarekiko kontaktua eten arren, giro emozionalari eusten diogu, ama ez dagoen bitartean haurrak lasaitasuna eta konfiantza izan ditzan.

Ama aipatzen duzu, ez aita...

Ez, aita ez. Amaren bularrean 18 hilabetean egon beharko genukeela esaten da; bederatzi hilabeterekin jaiotzen gara, eta gero beste bederatzi hilabete horiek kanpoan egiten ditugu. Hezte prozesua amarengandik dator kio haurrari, eta amarengandik jasotzen dituen kontaktuan jarraituz bideratuta dauden funtzioak: bularra amak eman behar dio. Bularra ematea ez da apeta kontua: ahoaren inguruan daude beste zentzumen guztiak, eta amarekiko kontaktua oso garrantzitsua da. Intimitateak hori du oinarri. Heziketa ez da eskolako bezalakoa; haurrak arreta nola jartzen duen edo ikasteko zer gaitasun duen, arloak nola gaintzen dituen... Ez da hori. Lehendabizi, haurren gorputzak osatu behar du pixkana, eta gorputza osatzeko, amarengandik datorren haria dugu. Horregatik, haurrak hiru urtera iristen direnean, euren

gorputzaren oinarriko heziketara iristen direla ikusten dugu (guk garbi ikusten dugu, hiruzpalau urte arteko haurrekin aritzen garelako), eta ama barneratua izaten dutela; orduan hasten dira gainerako haurrekin harreman sakinagoa izaten, amari etxean geratzeko esaten diote, eta aitarekin harremanetan hasten dira. Haurraren hezte prozesuak nolakoak diren eta nondik datozen ikusten ari gara, eta haurrari garrantzia ematen diogu. Beharrezkoa da haren gaitasunak abian jartzea, eta, horretarako, garrantzitsua da amak betetzen duen tokia. Amarengana etengabe itzultzen da; lasaitu egiten da, sabeleko egoerarekin konektatzen du... Aitak giro horretan lagundu egiten du, giro hori egokia izan dadin laguntzen du. Garrantzi handikoa da bikoteak duen erlazioa; haurraren heziketarako konpromisoa baldin badute, eta haien zeregina zein den garbi baldin badute, garrantzitsuena bakoitzak bere eginbeharrei aurre egitea da, eta elkarren artean ahalik eta komunikazio onena izatea. Baina aita ere oso pertsona garrantzitsua da, giro hori sortzen laguntzen duelako, elkarrekin aita hori amarekin duena bezain estua ez izan arren.

Seme-alabak eta ikasleak errespetuz hezteko garrantzia aipatzen duzue... Erritmoak eta beharrak errespetatzeaz ari al zarete?

Zaila da gaur egun. Lehen, haur asko ekartzen ziren mundura, baina gurasoek ez zuten haur bakoitzari nolako heziketa eman planteatzen, biziraupenak markatzen zuen moldea, testuinguru sozial jakin batean. Gaur egun, aldiz, ez ditugu 11-12 seme-alaba; orain, bakarra, bi edo hiru izaten ditugu, eta zer gertatzen da? Haurraren beharrak ulertzen hasi garela. Lanaren ondorioz, produktibitatearen ondorioz, gutxiago gara orain etxean. Etxe bakoitzean aita, ama eta seme-alabak daude (lehen aitona-amonak, izeba-osabak... ere izaten ziren). Lehen, ama etxean egoten zen haurrekin, eta orain, ez. Heziketa horretan arretarik ez badago, komuni-

kazioa galdu egiten dela ikusten dugu, eta, batzuetan, gurasoek seme-alaba horiekin arazoak izaten dituztela.

Lehenengo egoeratik gaurkora aldaketa handiak gertatu dira, eta, gaur egun, badirudi gurasoek seme-alabak edukitzean jarraibide-koaderno bat izan beharko luketela. Ez zaie irakasten guraso izaten, baina euren seme-alabekin komunikazio ona izan nahi badute, haurraren heziketa prozesua nolako den jakin behar dutela konturatzen ari gara. Ez zaie laguntzarik ematen, ordea, eta erditze prozesua oraindik ere soilik emakumearena balitz bezala ikusten da. Haurdunaldirako prestakuntzara joaten da bikotea anbulatortiora, eta gizonari kasurik ere ez diote egiten; hori ez da ulergarria. Erditzean, gizonak garrantzi handiko funtzioa betetzen du, eta ezin da ulertu nolatan ez zaien laguntzen erditze horretan parte hartzen.

Bikoteak urrun daude heziketan zer egin behar duten jakitetik. Usurbilen ikerketa bat egin genuen emakumeek erditzea nola bizi duten jakiteko, eta emakume gehienek haurra izan eta gero oso gaizki pasatzen dutela ikusi zen, bakardadea sentitzen dutela, ezintasuna, eta zenbait arazoren aurrean ez dakitela nola jokatu. Haurrekin duten harremana horren garrantzitsua dela kontuan hartuta, astakeria handia da arlo horretan halako hutsunea izatea, informaziorik ez izatea.

Irakasleek, berriz, irakatsi egin behar dute, baina, bide horretan, oztopok izaten dituzte, hiru urte bitartean hezi egiten delako, eta, hezteko, komunikazioak garrantzi handia duelako; hizkuntzaz, motrizitateaz, afektuaz, sexualitateaz... irakasleekin gauza horietaz ari garenean, beste ezagutza mota bat behar dutela ikusten dute, ez haurrekin egoteko, haurren heziketa prozesuan parte hartzeko baizik.

Beraz, hezitzaileek eta gurasoek nolabaiteko prestakuntza beharko lukete?

Bai. Gurasoek oztopo sozial izugarria dute; asko ikastolara joan dira, ikasi

egin dute, lanbide bat aukeratzeko dute, lan horretan borrokatzen dira, etxe bat lortzen dute, eta, bikotekidea dutenean, badirudiseme-alabak izan behar dituztela. Eskaera soziala da, eta lehen, ohituraz, horrela jokatzeko zen: ezkondu, eta seme-alabak izan. Baina, gaur egun, zer gertatzen da? Heziketa prozesu horren kontaktua erabat galduta dagoela; lehen, ama eta izebak, amonak... ziren inguruan, baina gaur egun ezagutza hori ez da transmititzen, eta, seme-alabak izateko unean, prozesu horri aurre egiteko konfiantza nahikorik ez dutela ikusten dute. Guraso askok haurdunaldian eta erditzean parte hartu nahi dutela esaten dute, baina, erditu eta gero, haurrekin nola jokatu jakiteko informazioak ez dituzte. Guk zortea dugu, guregan etortzen den jendea bere borondatez datorrelako; zer aldaketa egiten dituzten ikusten dugu, eta haurra jaio ondoren, etxean duten parte-hartzea nolakoa den, eta bikotea behar horien aurrean nola koordinatzen den. Aberasgarria da hori. Sentiberago bihurtzen dira, duten informazioak laguntza handia ematen die, eta garrantzia ez duela soilik egotera ekonomikoak ikusten dute, egoera fisikoa, emozionala eta komunikatiboa ere garrantzitsuak direla.

Gaur egun haurrek gauza asko dituzte, materialak gehienak. Baina hutsune garrantzitsua dago, beraz, batez ere pertsonak falta direlako...

Bai, huts egiten du horrek. Eta bada huts egiten duen beste gauza bat ere: haurren heziketa prozesuan, medikuntzak bizitza salbatzen du, baina ez du kontuan hartzen bizi kalitatea. Gizatasun faktoreekin lotuta dago hori; medikuntza eta tresna teknologikoak asko ugartu dira, baina ez da lantzen harremanak eta haurren inguruko giro emozionalak duten garrantzia. Oraindik ere muga handiak ditugu.

Nola jokatu behar du hezitzaileak etapa horretan (0-3), haur bati benetan behar duena emateko?

Horretarako, gelan zenbat haur izatea komeni den planteatu beharko du gu berriro, gero erraz aritzeko aukera izateko. Garrantzitsua da haurren gaitasunak zein diren eta euren heltze prozesuaren zer mementotan dauden ikustea; irakasleak baliabideak izan behar ditu, haurrekin duen harremanean haurren gaitasunak garatzen laguntzeko. Hitzak asko laguntzen du giroa egituratzen. Haurrak, askotan, bata bestearengana joaten dira, duten motrizitatearengatik, eta joka ari direla ematen du; baina ez da horrela izaten. Hozka egitean ere gauza bera gertatzen da: hozka egiten duten unean, nolabaiteko irrika dute. Haurrak hustu beharra badu, eta zerbait biguna topatzen badu, hozka egingo dio. Irakasleak hozka egiteko beste gauza batzuk ematen badizkio, bideratu egingo du egoera hori, zeren haurrak, berez, ez baitio besteari hozka egin nahi. Horrek guztiak haurrarekiko gertutasuna eskatzen du, ezagutzea eta behatzea.

0-3 urte bitartean, haurrek zainketa egokia jasotzea garrantzitsua da, gure nortasuna, bizitzarekiko jarrera... garai horretan finkatzen direlako. Baina hortik aurrera ere beharrezkoa da?

Hortik aurrera ere oso garrantzitsua da; baina lehen hiru urteak oinarritzokak dira, heziketa fisikoa, afektiboa eta emozionala delako. Gero, sinbolismoa hasten da, eta, aurreko urte horiek nolakoak izan diren, sinbolismoaren etapa ere aberatsagoa edo pobregoa izango da. Hiru urte bitartean, haurrak gaitasunak landu behar ditu. Helburua ez da ezagutza, gaitasunak garatzeko baliabidea baita ezagutza. Gaitasunak garatzea da garrantzitsuena.

Hiru atal aipatzen dituzue, eragiketa matematiko baten moduan planteatuta: UKITU + SENTITU = KOKATU. Azalduko al zeniguke hori apur bat?

Bai. Ukituk unibertsoaren sorreratik hasita gaurdaino nola etorri garen adierazten du. Bata besteari barnean

egonda iritsi gara gaur egunera arte, eta horrek integrazioarako gaitasuna sortu du. Bizitza mota guztiek barne kohezioa dute, eta gu une honetan gaude, baina ez dakigu nola bukatuko dugun, izan ere, bizi dugun kontaktu motaren arabera, aldaketak gertatuko baitira. Haur bati masajea ematen ari garenean, esaterako, ekintza hori guregan aldaketa eragiten ari da. Kontaktua beti aldatzen ari den zerbait da, beti mugimenduan dagoen egoera da. Ukitzeak garrantzi handia du, eta besteari beharrei kasu eginez ukitzen badugu, haurren beharrik garatzen ari gara, baina, aldi berean, geure burua garatzen ari gara, pertsona horrek zer behar duen ulertzen ari garelako.

Eta sentitu?

Norberaren izateko modua da: ni neronekin txikitatik nola hezi nauten. Norberak bere buruarekin daraman prozesua da. Geneek pertsona nola osatuko den esaten dute, baina pertsonak sentitzeko modua ere badu. Sentitzeak garrantzi handia du. Haurren inguruan sortzen dugun giroaren arabera landuko ditu hark bere baliabideak, eta etorkizunean, pertsona horrek eskura dituen gaitasunak erabiliko ditu, aurkitzen dituen oztupoak eta zailtasunak gainditzeko. Zer-nolako sentimena ekarri duen ikusi behar da, eta harekin zer-nolako sentimena landu den, nola ukitu duten, eta horren bidez zer sentitu duen. Horrek bizitzan kokatzeko modu jakin bat dakar. Haurrek maitasuna eta arreta behar dituzte, euren oinarria lantzeko.

Beraz, hiru arlo hauek elkarri lotuta daude: alde batetik, fisikoki, hezte prozesuan gorputzak duen bizitasuna egoki garatu behar da; bestetik, emozionalki, amarekiko eta etxearekiko atxikimendua egoki landu behar da, eta hirugarrenik, gurasoekiko harremanak erraza izan behar du, naturala. Lehen hiru urte horietan haurren gaitasunak kontuan izan badira, sentimenak lantzen dira, adimena... Beraz, adimen emozionala hiru alor horietan kokatuko litzateke.

Maskulinitatea

Zer gertatzen da mutilekin?



Ibon ARRIZABALAGA DE MINGO

BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZON TALDEEN SUSTATZAILEA

Gaur egungo hezkuntza eredua mistoa izan arren, sexuen arteko arazoak gaindituak daudenik ezin da esan Ibon Arrizabalagak artikulu honetan dioenez. Elkarrekin hezten diren arren, neskei eta mutilei tratu eta balio ezberdinak ematen zaizkiela dio, eta mutilen kasuan gertatzen denari jarri dio arreta. Arrizabalagak dioenez, maskulinitasuna ez da balio positiboa gure gizartean; inork ez daki ziur gizon izatea zer den, bai, ordea, gizon izateko zer ez den izan behar.

Irakasle, irudika ezazu une batez zure ikastaldea. Zenbat neska dituzu? Zenbat mutil? Bazenekien, ala zenbatu behar izan dituzu? Noren izenak erabiltzen dituzu maizago? Zergatik? Pedagogikoki egokiena deritzozulako, ala halaberrez? Izaten al duzu kontaktu fisikorik zure ikasleekin? Hori adinaren arabera aldatuz doan arren, ezberdina izan ohi da mutil edo neska izan: berdin

ukitzen al dituzu? Zu zeu, gizon ala emakume zara? Horrek haiengan duen eraginaz pentsatu al duzu? Eta zugan, zure portaeran duen eraginaz?

Galdera horien xedea ez da inolaz ere zure lan era zalantzan jar dezazun, ongi baitakit baldintzak ez direla hoberenak, eta egunero egiten duzula ahal bezain ondoen. Baina aukera dugunez, pentsa dezagun apur bat.

Izan ere, gaur egungo hezkuntza eredua, mistoa da, baina horrek ez du esan nahi sexuen arteko arazoak jada gaindituak daudenik. Alderantziz, arreta berezia jarri behar dugula baizik, elkarrekin hezten ditugun arren, tratu eta balio ezberdinak ematen eta igortzen baitizkiegu neska-mutilei. Gaurkoan, bereziki, mutilengan jarriko dugu arreta. Zer gertatzen da mutilekin? Zer da gure ikasleentzat mutil izatea?

Nola ikasten dute hori?

Gure gizartean, gezurra badirudi ere, maskulinitasuna (gizon izateko eredua, alegia) ez da balio positibo bat. Inork ez daki ziur gizon izatea zer den, inork ez daki nahikoa gizon ba ote den: erakutsi egin behar da, etengabe. Bada-kite ordea, zer EZ den izan behar: ez emakume, ez haur, ez *marineska*. Ondorioz, mutikoak hazten doaz, erreferentziatzat besteak hartuta: "Ezin naiz ni neu izan: negar gutxiago eta buila gehiago egin behar dut. Baimentzen zaidan emozio bakarra amorrua da. Gehiago saiatu behar naiz kirolean. Ikasgelan txintxoegia banaiz, neskatzat hartuko naute...". Norbere erreferentzia galduta, lehiak sekulako indarra hartzen du (ni nor naizen ez dakidanez, gutxienez zer naizen jakiteko: onena, bigarrena...).



Mutilei askatasun handiagoa ematen diegu ibiltzen ikasten dutenetik, baina horrek dakartzkien erronkei bakarrik erantzuten molda daitezela nahi dugu (neskei baimentzen dizkiegun erantzun emozionalei kasu egin beharrik gabe). Ez ditugu neskak bezain goxo tratatzen, ez hainbeste ukitzen, eta gure arreta bereganatzeko bestelako portaerak garatzen dituzte. Horrek aztoratu egiten gaitu maiz, eta merezi ez duten erantzuna jaso ohi dute. Mutilek sumatzen dute helduokez dugula haie-taz nesketaz bezain ongi pentsatzen; gaiztoagoak direla uste dugula. Horrek mutikoaren bakartzea eta mina areagotzen du, eta mendeku-nahia erakar dezake, ingurukoenganako mesfidantza eta oldarkortasuna garatuz.

Gizarte honetan, oharkabea, gizonak oraindik ere zapaltzaile-rolak jokatze-ko trebatzen gaituzte. Hedabideek eguneroko ematen digute gizonon basa-

keria eta krudelkeriaren berri. Horrek nahastu egiten gaitu, eta aspaldi irentsi genuen gezurra elikatzen du: gizonak berez garena gizatxarrak, eta ez dagoela zereginik. Gure ikasle mutiko batek okerren bat egiten duenean, uste hori berresten dugu (bai irakasleak, baita ikasleak berak ere), eta harekiko itxaropenagaltzen goaz. Horrek rola indartzen du: mutilek ikasten dute haien zat ez dagoela laguntzarik zailtasunak dituzten esparruetan; espero dezaketen bakarra hankasartzeak egitea, mina eragitea, dela, eta gero, zigorra eta bakartzea. Atsekabetuta, gero eta errazago joko dute bortizkeriara, gatazkei aurre egin behar dietenean.

Baina neska-mutilak ez dira ezberdinak bere sexuagatik: guztiak dira gizakoi, lagunkoi eta bihotz handiko pertsonak; guztiak dira adimentsu, edo zer ikasteko gai eta baita hankasartzeak zuzentzeko gai ere. Gure muti-

koek mezu hori jaso behar dute, ha-maika erataria. Haien izenak goxo entzutea merezi dute. Irribarreak eta kei-nu txeratsuak ere bai. Kontaktu fisikoa behar dute (minik eragin gabe, baina indarrari ere lekua eginez), eta horrekin lasai agertuko diren helduak. Beste-teen zaintza eta ongizateaz arduratzen diren gizonen aipamen eta irudiak behar dituzte ikasliburu eta abarretan. Eta baita emakume indartsu eta kementsuen adibideak ere. Ipuinetan gaizkilerik badago, azaldu egin behar da zergatik jokutzen duen horrela. Zeu, irakasle, mutikoen lekuan jartzen eta ulertzen saiatzen zarela sumatzeak lagunduko du. Eta batez ere, neskekin parez-pare egon behar dute, jolastu, lan egin eta elkar-ezagutzeko aukera izan; elkarren arteko harremanak zenbat eta sendoagoak izan, orduan eta gutxiago sinetsiko baitituzte sexismo-aren gezur eta mezu ustelak.

Iazko bidaia pedagogikoak Suomiko edo Finlandiako hezkuntza ezagutzeko aukera

hik hasi **23.**
monografikoa

**Finlandiako
Hezkuntza Sistema**



eskaini zigun.

Alea haren emaitza da

Zer egin daiteke ikasle etorkinak egoki eskolatzeko? Zer prozesu jarrai daiteke?



Hezkuntzak gaur egun duen erronka nagusienetako bat, etorkinen eskolatzeta da. Gizartean gertatzen ari den immigrazio fenomenoak eskolatan islatzen da, eta urtez urte gora egiten ari da. Gainera, ikasle berriak ikasturtearen edozein mementotan datoz, eta irakasleek etengabeko egokitzapenean murgildu behar dute. Desoreka handia sorrarazten du horrek, baina hezkuntzako profesionalak ahalegin ikargarria egiten dugu ikasle horiek benetan integratu daitezkeen, hizkuntzak jaso ditzaten, curriculumean aurrera egin dezaten, eta garrantzitsuena: ongi senti daitezkeen, eta ongi tratatuak izan daitezkeen.

Gurean, duela bederatzi urte hasi zen ibilbidea. Urte hartan hiru anai-arreba marokoar eskolatu ziren. Egoera erabat ezezaguna, arrotza zen, ez baitzuten ezgatzelaniarik ezta euskararik ezagutzen; beraz, ikasle horiei nola erantzun, kezkarria zen.

Ikastolak arabiera eta euskara zekizkien irakasle bat kontratatu zuen, eta hiru hilabete luzez ikasle horiei, modu etengabea, euskara irakasteaz gain, programazioa jarraitzen eta irakasleei egoerari aurre egiten lagundu zien.



Eli ALTOLAGIRRE

URRETXU-ZUMARRAGA IKASTOLAKO HIZKUNTZA INDARTZEKO PROGRAMAKO IRAKASLEA (HIPI) ETA HEZIKETA BEREZIKO IRAKASLEA

Neba-arreba horiek (gazteena Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dago, Batxilergoan dago erdikoa eta zaharrena Batxilergoan amaituta), eskolatzeko normalizatua izan dute eta integrazioa ere, erabatekoa izan da. Beraz, gaur egun, ikasle horiek eredu bihurtu ditugu.

Geroztik, ikasle berri gehiago joan da eskolatzeko; kubatarak, argentinarak, sahararrak, Espainiako estatukoak (Kanaria uharteak eta Katalunia),

marokoarrak, dominikarrak, brasildarrak, nikaraguarrak, errumaniarrak, portugaldarrak... Baina benetako gorakada azken hiruzpalau ikasturteetan gertatu da.

Egoera masibo horrek ikastetxeko plangintza egitera bultzatu gintuen, eta bertan, denok inplikatu behar ginen. Horretarako, klaustro osoak, Amelia Barquín Mondragon Unibertsitateko irakaslearekin, kulturartekotasunaren inguruko formazioa jaso genuen, eta, besteak beste, sentsibilizazioa, nortasuna, integrazioa eta enpatia landu gintuen. Irakasleen balorazioa positiboa izan zen, hausnarketarako beta eta aukera eman baitzigun.

Ondoren Harrera Plana sortu genuen. Proiektua hiru fase nagusitan bereizten da¹:

- 1.- Familien harrera.
- 2.- Ikasle berriaren egoeraren azterketa.
- 3.- Gela arruntan kokatzea eta integrazioa.

1. Familien harrera

Zuzendaritzak eta orientatzaileak lehen hurbilketa familiarekin egiten dute. Hasierako hartu-emanak oso ga-



Oinarrizkotzat jotzen ditugu giza harremanak (balioak: errespetua, enpatia, ongi tratatzea). Horiek oso garrantzitsuak dira haurren eskolatze-egokitzapenean; ikasketetan motibatze, kognizioa bezain garrantzitsua baita afektua. Baina integrazioa ez da soilik lehen unean landu behar, egunero-egunero pertsona berriarekin elkabizitzen eta hura errespetatzen jakin behar dugu.

rarrantzitsuak dira, gurasoak eta ikasleak egoera zail baten aurrean daude, beldurra dute, hainbat hezkuntza sistematik datoz, beste hizkuntza bat dago (edo beste hizkuntza batzuk daude), seme-alabengan espektatiba batzuk dituzte... Eta hori guztia kontuan izanda, eurentzat garrantzitsuena seme-alaben ongizatea da. Gure helburu nagusia, hori bermatzea izango da.

Zuzendaritzak eskolako funtzionamenduaren (zerbitzuak, egutegia, ordutegia), Hezkuntza Sistemaren oinarrien eta eraikuntzaren berri ematen dien bitartean², orientatzaileak aurrez aipatutako bizi egoera, beldurrak eta espektatibak landuko ditu.

Administrazioak, bestalde, zenbait diru laguntza lortzeko informazioa helaraziko die.

2. Ikasle berriaren egoeraren azterketa

Bigarren fase horretan ikasle berriaren egoera pertsonala, emozionala, nahiz akademikoa aztertuko da. Esparru horretan, orientatzaileak oinarrizko

kontzeptuak baloratzeko (hizkuntza eta matematika) froga batzuk egingo dizkio.

Bestalde, egunez egun joango da haurra behatzen eta baloratzen, non txertatuko den erabaki arte. Bitartean, orientatzailea eta HIPI-a elkarlanean arituko dira ikasle berria ongi senti dadin eta beldurrak pixkana uxatuz, identifikazioa eta segurtasuna lortzen dituelarik.

Gela arruntean kokatzeko adin kronologikoa errespetatzen saiatzen gara, baina ikaslearen egoeraren baitan hartzen da erabakia.

3. Gela arruntean kokatzea eta integratzea

Behin zein mailatan integratuko den adostu eta gero, mailako irakasleekin bilera egiten da ikaslea zein gelatan txertatuko den erabakitzeko. Ondoren, gelako tutorearekin harrera prestatzen da. Pauso horri garrantzi handia ematen diogu benetako inklusioa, talde bateko partaide sentitzean lortzen delako.

Elkarlan horretan oinarrizkotzat jotzen ditugu giza harremanak (balioak: errespetua, enpatia, ongi tratatzea). Horiek oso garrantzitsuak dira haurren eskolatze-egokitzapenean; ikasketetan motibatze, kognizioa bezain garrantzitsua baita afektua. Baina integrazioa ez da soilik lehen unean landu behar, egunero-egunero pertsona berriarekin elkabizitzen eta hura errespetatzen jakin behar dugu. Hasieran, berrietasunak, ikasle berriarenganako jakinmina pizten du besteengan, bainajarra horrek behin betikoa izan behar du, eta ez behin-behinekoa. Horregatik da garrantzitsua integrazioa egunerokotasunean ematea.

Jarraian, ikasketa plana finkatzen joango gara (curriculumaren edukiak eta hizkuntza). Plan hori egunez egun moldatuko dugu, ikaslearen beharren eta erantzunen arabera egokituko dugu; beharrak eta gaitasunak identifikatuz, nola aurre egiten duen baloratuz eta gabeziak indartuz.

Lan horretan tutorearen eta HIPI-

aren arteko elkarlana ezinbestekoa, funtsezkoa da.

Hizkuntzaren ikaskuntza da kezkatzen gaituen alderdi nagusia.

Kasu batzuetan, ikasle berriek ez dute ez euskara eta ez gaztelaniaren ezagutzarik, eta horrek komunikazioa erabat mugatzen du. Egoera horrek irakasleengan ezinegon handia sorrazten du, hizkuntza pertsonen arteko harremanetarako, gizartean integratzeko eta ikaskuntzarako ezinbesteko tresna delako.

Ondorioz, irakasleak arinegi ibiltzen gara. Ikasleak euskara lehenbailehen jaso dezan nahi izaten dugu, ikasketak ere hizkuntza horretan ahal den azkarren burutzeko. Baina hizkuntzari eta zientziari askok, Jim Cummins-ek, esaterako, zera dio: "Hizkuntza kolokiala lortzeko hiru eta bost urte behar izaten da batez beste, eta, hizkuntza formala, akademikoa, zazpi urteren buruan lortzen da". Hortaz, ikasleari denbora eman behar zaio haren garapenean.

Ondorioak

- Etorkinen eskolatzea oso aberatsa izaten ari da irakaskuntzan inplikatuak gauden agente guztientzat.

- Gainerako ikaskideak eta irakasleak beste kultura batzuk ezagutzeko aukera izaten ari gara, eta horrekin batera, beste kulturekiko genituen hainbat estereotipo gainditzen ari gara.

- Aniztasunean elkarbizitzeak, sentibilizazioa, besteen lekuan jartzea eta laguntasuna bezalako balioak bermatzen ditu.

- Ikasle berrien eskolatzea onartua dugun fenomeno da, eta ikasleak ikastetxera etorri bezain laster jartzen da abian harrera plana. Erronka nagusia, aldiz, etorkina gelan integratzeko plana edo protokoloa sakontzea litzateke, mikro gizarte horretako taldekide senti dadin.

¹ Harrera plana egiteko orientabideak www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net (Hezkuntza berritzatzea, etorkinak).

² Euskal hezkuntza sistemari buruzko gida hainbat hizkuntzatan: www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net (Hezkuntza berritzatzea, etorkinak).

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

azaroa

berriak

Euskal Herriko ikastolak kooperatiba batean bilduko dira

Datorren ekainean egingo den batzarrean hartuko dute erabakia, baina ikastolek egitasmoa antolatu den moduan ontzat ematen badute, Euskal Herriko ikastolak erakunde bakarrean bazkidegata bilduko dira ikasturte amaieratik aurrera. Egitura berri hori kooperatiba moduan eratuko litzateke eta Kooperatiba Europarra izango litzateke. Europako Batasunak eredu kooperatibo hori jasotzen du, eta egitasmoa mugaz gaindikoa izanik, lege horri helduta emango lukete pausoa. Bestalde, UNESCOk esandakoa ere kontuan hartu dute ikastolek, hau da, komunitate linguistikoek trataera bateratua behar dutela, muga administratiboen inertzia zaharrek ezar ditzaketen hesien gainetik.

Ikastolak Orain eta Gero, 2020 egitasmoaren barruan egiten ari diren go-goetaren baitan kokatzen da asmo berria, eta Koldo Tellitu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentek Hendaian egindako ekitaldian esan zuenez, erakunde errazagoa egin nahi dute, bai barne prozesuei dagokienez, eta baita kanpora begirako harremanei dagokienez ere. Erronka berria lurral-

de guztietako ikastolen eta erakunde- en egitekoa izango dela esan zuen Tellituk, baina kontuan hartu behar direla tokian tokiko berezitasunak, eta oinarritzko batasunak, ez duela zertan tal- ka egin behar barne-aniztasunaren ku-

deaketa on batekin.

Urtarrilean batzarra egingo dute Euskal Herriko ikastolek, eta egitasmo- aren azken txostena onartuko dute. Ekainean, berriz, erakunde berriaren sortze batzarra egingo dute.



Egutegia:

2008ko azaroaren 24a: Ikastola guztiek ekarpenak egingo dituzte ordura arte.

2008ko abenduaren 10a: Gaia lantzen ari den taldeak txosten berria prestatuko du eta ikastolelara helaraziko du berriro ere egun horretarako, beranduenez.

2009ko urtarrilaren 24a: Euskal Herriko ikastola guztiak batzartuko dira eta egitura berria eratzeke azken txostena onartuko dute.

2009ko ekainaren 13a: Erakunde berriaren sortze batzarra egingo dute.

Txioka Haur Ikastola zabalik da Altsasun



Duela hamar urte proiektua gauzatzen hasi ondoren, irailaren 1ean zabaldu zituen ateak Altsasun Txioka Haur Ikastolak. Txio- kako eraikuntzak Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloak eta Lehen Hezkuntzako lehenengo zikloa hartzen ditu, eta espa- zio zabalak eta koloretsuak ditu. Txioka, Sakanan 0-3 urte bitarte- ko haurrei zerbitzu integrala eskaintzen dien lehen ikastetxea da eta haurrak dira bertako protagonista nagusiak. Orduetegi malgua dute (7:30etatik 16:30etara) eta irakasleak etengabeko formazio prozesuan murgildu dira. Gurasoei zuzendutako formazioa ere eskaintzen du Txiokak: hilabetero gai desberdinak jorratzen di- tuzte (mugak, sexualitatea, loa, esperimendazio sentsoriala, jolas kantak,...) familiekin lana koordinatzeko helburuz.

Psikomotrizitate jardunaldiak



Aurten, X. Hik Hasi Topaketak izango dira eta udako topaketez gain, ikasurtean zehar hainbat jardunaldi antolatuko ditu Hik Hasik. Lehena, azaroaren 28an eta 29an izango da, Donostian eta Durangon, hurrenez hurren. **Psikomotrizitate Praktika Haur Hezkuntzan: Pedagogia koherente baten bila** izenburupean egingo dugu jardunaldia eta gurekin izango da, besteak beste, Carles Font Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea.

Informazioa eta izena ematea: www.hikhasi.com edo 943 371 408 telefono zenbakira deituz.

Programa:

Azaroak 28 (ostirala) DONOSTIA

9:00 Karpetak banatzea eta sarrera.

9:30 Psikomotrizitate Praktika Haur Hezkuntzan: haur txikiaren hezkuntzan eta garapen globalean duen garrantzia, haur txikiaren eskola prozesuan ekarpenak.

Hizlaria: **Alvaro Beñaran.**

11:00 Atsedenaldia.

11:30 Antzuolako Herri Ikastetxeko esperimentzia.

Hizlariak: **Antzuolako andereñoak.**

13:30 Bazkaria.

15:30 "Onar al ditzakegu eskoletan haurrek askatasunez nolakoak diren esateko aukera emango dieten segurtasun espazioak?".

Plazerraren printzipioa. Bilaketaren pedagogia. ("Adierazpen libre"-ak zerbait esaten al digu?)

Baretasun psikikoa: Beharrezkoa al da eskolan psikismoarentzako espaziorik?

Hizlaria: **Carles Font.** Eskolako eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea. (*Gaztelaniaz*)

17:30 Mahai ingurua eta elkarrizketa. Carles Font eta Alvaro Beñaran.

18:30 Amaiera.

Azaroak 29 (larunbata) DURANGO

8:45 Karpetak banatzea eta sarrera.

9:00 Psikomotrizitate Praktika Haur Hezkuntzan: haur txikiaren hezkuntzan eta garapen globalean duen garrantzia, haur txikiaren eskola prozesuan ekarpenak.

Hizlaria: **Elena Herran.**

10:00 Antzuolako Herri Ikastetxeko esperimentzia.

Hizlariak: **Antzuolako andereñoak.**

11:00 Atsedenaldia.

11:30 "Onar al ditzakegu eskoletan haurrek askatasunez nolakoak diren esateko aukera emango dieten segurtasun espazioak?".

Plazerraren printzipioa. Bilaketaren pedagogia. ("Adierazpen libre"-ak zerbait esaten al digu?)

Baretasun psikikoa: Beharrezkoa al da eskolan psikismoarentzako espaziorik?

Hizlaria: **Carles Font.** Eskolako eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea. (*Gaztelaniaz*)

13:30 Mahai ingurua eta elkarrizketa. Carles Font eta Elena Herran.

14:00 Amaiera.

"Ilargiaren sekretua"-tik "El secret de la lluna"-ra

Hik Hasik ekoiztutako *Ilargiaren sekretua* filma, katalanez ikusteko aukera izango da 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera Kataluniako zineetan. Música Trapella arduratu da filmaren katalanezko ekoizpenaz, eta Bartzelonan izango da aurkezpena azaroaren 21ean. Bertan izango dira Hik Hasiko kideak, Música Trapellako ordezkariak eta Pirritx eta Porrotx pailazoak, Madame Sifós-ekin (Madame Banurekin) batera. Filma zineetan eskainiko bada ere, ondoren kultur etxe zein eskoletan ikusteko aukera izango da. Aurrerago, udaberrian, *Begiradaren heziketa*ren katalanezko bertsioa izango da eskuragai filmarekin batera DVD euskarrian. *Begiradaren heziketa*, zinema aztertzeko material didaktikoa da. Bertan, filma egiteko prozesua, gidoia, irudia, soinua, efektuak, diseinua, mezua eta zinearen bilakaera lantzeko jarraibideak eskaintzen dira.



Bizitza osoko ikaskuntza emozionala eta soziala


Bizitza osoko ikaskuntza emozionala eta soziala izeneko jardunaldia egin zen urriaren 15ean Donostiako Kursaal Jauregian. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zuten jardunaldian hiru eremu aztertu zituzten hizlariak eta bertan bildu zirenek: hezkuntza-eremua, gizarte-eremua eta antolakunde-eremua.

Hizlarien artean, berriz, atzeritiko

etorritako izen handiak izan ziren; Daniel Golleman, Harvard Unibertsitateko irakaslea horien artean. Golleman adimen emozionalaren gainean egin dako lanengatik egin da, batez ere, eza-gun eta adimen sozialari buruz mintzatu zen Donostian. Harekin batera izan ziren, besteak beste, haren lankide diren Roger P. Weissberg eta Linda Lantieri, eta baita Euskal Herriko zein Estatu espainiarreko zenbait aditu ere.



Atlas Historikoa. Euskal Herria Munduan



Euskal Herriko Atlas historikoa argitaratu du Elkar argitaletxeak. Eduardo Perezek egin du atlasa, Euskal Herriko historiari gainbegirada emateko helburuz. Atlasa historikoa, didaktikoa, Euskal Herrikoa eta mundukoa dela esan zuten egileek aurkezpenean. Didaktikoa da, izan ere, hainbat osagai pedagogiko jasotzen ditu; mapa tematikoak, maketak, kontzeptu mapak, infografiak, webguneak... Liburua bost arotan banatzen da: Historiaurrea, Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea. DBHko eta Batxilergoko ikasleek inongo arazorik gabe erabiltzeko moduko gida dela azpimarratu zuten egileek.

Ikastaroak

* **Jardunaldi pedagogikoak. Tutoretza. Elkarren arteko jarduera, etorkizunerako jokaera** **Noiz:** azaroaren 5-ean. **Non:** Barakaldon, Clara Campoamor aretoan. **Antolatzailea:** Barakaldoko Berritzegunea. **Informazio gehiago:** www.bgune04.net.

* **Demokrazia, hezkuntza eta herritarren partehartzea** **Noiz:** azaroaren 11n. **Non:** Donostian, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien fakultatean, UPV-EHU. **Antolatzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia. **Informazio gehiago eta izen ematea:** amaia.intxaurreaga@ehu.es edo 943 015 937.

* **Irakasle sortzaileak, ikasle sortzaileak** **Noiz:** azaroaren 14an. **Non:** Bilbon. **Antolatzailea:** Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa. **Informazio gehiago:** www.fundacionnce.org.

* **Trebakuntzarako ikastaroak, Astronomia eta egungo munduko zientziak** **Noiz:** azaroaren 14 eta 15ean. **Non:** Donostian, Zientziaren kutxagunean. **Antolatzailea:** Zientziaren kutxagunea. **Informazio gehiago:** www.miramón.org.

* **Psikomotrizitate jardunaldiak.** **Noiz:** azaroaren 28 eta 29an. **Non:** Donostian eta Durangon. **Antolatzailea:** Hik Hasi. **Informazio gehiago eta izen ematea:** www.hikhasi.com edo 943 371 408.

NOBEDADEA

Kosmoiet

Izarretako misioa

Hemen duzu planeten misterioak argitzeko mahai jolas berria. Bihur zaitez espazio-ontzi azkar baten pilotu eta konkista itzazu Lurra eta Eguzki sistemako beste planetak.



33 euro

ARGIAren harpidedunek

Ludi**toys**

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com



Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen urriko eztabaidak utzi diguna...

>>> EAEko Hezkuntza Sailak "Euskadin hizkuntza ofizialak eta atzerrikoak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko markoaren lege proiektua" aurkeztu berri du. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, aldiz, HTI (TIL) edo "Hizkuntzen Tratamendu Integrala" deritzana. Zer iritzi duzue proiektu horien gainean?

> Denak dira zailtasunak Herri honen hizkuntza eta kultura normalizatzeko bidean. Hain herri txiki eta hain jende gutxi... Botereak mila modu ditu gu nahasteko. Horregatik da boterea, ahalmena duelako, dirua, langileak, komunikabideak, "intelektualak", estrategak berea inposatzeko. Orain, zentro pilotuak behar dira, urte askotan erakutsi dena ikertzeko zentro pilotuak behar. Hori dirua xahutzea, aitzakiak bilatzea... hori da haien boterea, eta, denontzako miseria. Zentro pilotuak baino manipulazioaren pilotuak dira, eta niregatik joan daitezela bere nabea manipulatzeko, pilotatzen... Eta ez itzultzeko, noskiltan euskaraz ikasteko hizkuntza propioa izanda, ez al dagokigu nafar guztioi hori ezagutzea? *Felix Aldanondo*

> Berdintasunaren izenean, denok dugu hezkuntzarako eskubidea.

Berdintasunaren izenean, denok dugu baztertuak ez izateko eskubidea.

Berdintasunaren izenean, denok dugu harreman librea izateko eskubidea.

Berdintasunaren izenean, denok dugu gure ahalmenak garatzeko eskubidea.

Berdintasunaren izenean, denok dugu elkarbizitzarako eskubidea.

Berdintasunaren izenean, denok dugu hautatzeko eskubidea.

Zergatik ukatu nahi zaie, bada, Herri honetako ikasle batzuri bertako hizkuntza eta kultura propioak ezagutzea? *Maizola*

>...Hegoaldean zentratuta dago eztabaida eta ni gehiago kezkatzen nau Iparraldeak. Hegoaldean egoera oso ahula bada ere, poliki-poliki aurreratzen ari dela dirudi. Iparraldean, aldiz, batzuen ahaleginetik at, oro har, euskararen ezagutza eta erabilera galtzen ari dira abiadura handian. Dakitenek ere, gutxi erabiltzen dute, zertan ari gara? Herri bezala jokatu beharra dago. Herri proiektu gisa antolatu, pentsatu, sentitu eta grina eta maitasun hori zabaltzen joan. Mundu osoari egiten diogun ekarpena da. Gure kultura eta hizkuntza galtzeak munduko kultura aberastasuna pobretzea litzateke, mantentzea edota indartzea, aldiz, aberastea. Kontzientzia izatea eta hizkuntzarekin gozatzea dira gakoak... Eta Herri gisa antolatzea, ene aburuz. *Felix Aldanondo*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Hizkuntza ereduaren gaineko eztabaida puri-purian dagoenez, galdera berari eutsiko diogu azaroan. Zuen ekarpenen zain izango gara!

Partekatzeko proiektuak

Eskuartean proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzerara bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatzeko aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitetzte besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoan Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Zer da ba maitasuna?
Miren Agur Meabe
ELKAR

Liburua, nobela bat den arren, bere baitan poema-liburu bat txertatu du idazleak. Berezi eta Mister X dira protagonistak. Bakoitzak bere istorioa kontatzen digu, eta irakurleak aukera egin dezake: neskaren kontakizuna irakur dezake lehenik, edo mutilarena, bestela. Liburuak bi azal ditu eta edozein aldetik has daiteke irakurketa. Conchetta Probanzarenak dira irudiak •



Zigomar-en Afrika
Philippe Corentin
IKAS

IKAS-ek argitaratu duen haur literaturako album berri horretan, Zigomar zozoak Afrikara joan nahi du bilagunekin; saguarekin eta igelarekin. Baina, helduko ote dira? Bidaia irigarria egingo dute hainbat leku zeharkatuz eta abentura polita biziko dute hiru lagunek. Maialen Bidegainek egin du itzulpena •



Biologiaren hiztegia
Iñaki Gonzalez Garai, Jon Umerez
GAIK

Hiztegi entziklopedikoa da eta laguntza-tresna izan nahi du bizitzaren zientzien gainean jakin-mina duen edonorentzat, baina bereziki Batxilergoko Biologia, eta geologia eta Biologia ikasgaien ikasleentzat. Biologiaren hainbat arlo jaso dituzte: animalien eta landareen bizia, zelula, biokimika, ekologia, genetika, fisiologia, eboluzioa... 240 hitz sarrera ditu •



IV. Inkesta Soziolinguistikoa
EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzak IV. Inkesta Soziolinguistikoa argitaratu du. 1991tik 2006ra bitarteko Euskal Herriko datuak aztertu dituzte, baina aurrez, EAE, Nafarroa eta Iparraldeko datuak eskaintzen ditu lanak. Hainbat ikerketa eremu jaso dituzte: herritarren hizkuntza-gaitasuna edo hizkuntza ezagutza, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan eta euskararekiko jarrera •



**Zenbait orientabide erregistroen trataeraz
IKASTOLEN KONFEDERAZIOA
ETA EUSKALTZAINDIA**

Liburua Ikastolen Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lanaren emaitza da. Hezkuntza munduan, hizkuntza aldaera eta erregistroei buruz plazaratu diren gomendio, jarraibide eta orientabideen gainean argi izpia egin nahi izan dute. Bai gela barruan, bai gelatik kanpo, horiek lantzeko orientabideak ematen dira •



Eguzkiaren lasterketa
Txani Rodríguez eta, Nacho
Fernández eta Verónica Rosado
SAURE

Manuelen amak hotel ekologikoa ireki du Darwin aldean eta han bizi da familia osoa. Fast doktorea hoteleko bezeroa da, zientzialaria da, eguzki-autoa sortu du eta lasterketa bitxi batean hartuko du parte. Bi gaizkile autoari sabotaria egiten saiatuko dira... Bestalde, lagun berriak egingo ditu kontzientzia ekologikoa piztuz •

... nora joango gara?

Isturitze eta Otsozelaia harpeak Harriak musika bihurtzen diren leku magikoa

Isturitze eta Otsozelaia harpeak laminen bizitoki zirela sinetsi izan dute luzaroan inguruko bizilagunek. Hala ere, han bizi zirenak ez ziren lamina gaiztoak, eta, argia gustuko ez izan arren, herritarren batek laguntza behar izanez gero, berehala irtengo ziren handik, hari laguntzera. Horren aurretik, ordea, jende gehiago bizi izan da han. Neanderthalgo gizakia izan zen lehena, duela 80.000 urte, eta Homo sapiens sapiensak etorri ziren ondoren. Gaur egun, harpeak zabalik daude, eta monumentu historiko dira.

Gazteluaren muinoan kokatzen dira kobazuloak. Isturitze harpea goiko aldean dago, eta beheago, berriz, Otsozelaia harpea; gaur egun, hirugarren kobazuloa sortzen ari da erreka, Erberua izenekoa. Baina, oraingoz, lehen biak baino ezin dira bisitatu.


Gizakia Isturitze kobazuloan bizi izan zen, argitsua zelako. Otsozelaian, berriz, kanpoko argirik ez zen sartzen, eta ez ziren han bizi, baina suaren argiaz baliatuz bisitatzen zuten, eta artea egiten zuten han. 20 irudi eta irarlan aurkitu dira, eta errituak egiteko erabiltzen zituztela uste da.

Balio geologiko eta historiko handia dute Isturitze eta Otsozelaia harpeek. Urak forma ikusgarriak sortu ditu

mendezmende, eta horigutxi balitz bezala, harpe haietan bizi izan ziren gizakiek balio handiko pinturak, irarlanak eta tresnak utzi zituzten. Bitxia da, gainera, baina animaliak irudikatzeaz gain (bisonteak, zaldiak eta elur-orei-

nak), historiaurrean ohikoa ez zen zerbait ere irudikatu zuten: giza irudia. Haitzulo horietan topatu dituzte Europako txirularik zaharrenak ere, duela 32.000 urte arrano hezurrez egindakoak. Eta apaingarriak ere aurkitu dituzte;





ISTURITZE ETA OTSOZELAIA HARPEAK

64640 DONAMARTIRI (Nafarroa Beherea)

Telefona: (0033) 0 559 2 296 472

www.grottes-isturitz.com



Oharrak:

- Bisitak ordubete ingurukoak dira.
- Harpeetan 14° C-ko tenperatura egiten du urtean zehar.
- Prezioak:

Helduak: 8,30 euro

Haurrak (7-14 urte): 3,50 euro

Taldeak:

Helduak: 6,60 euro

Haurrak: 3 euro

Jarduerak:

> Lantegiak

Adinguztietako ikasleek dute lantegiak egiteko aukera. Horretarako, gehi-
go ordaindu behar da, eta oraingoz, frantsesez baino ezin dira egin, euskaraz es-
kaintzeko proiektua esku artean duten arren.

animalien buruak dira gehienetan, ertz batean zulotxoak dutenak, eta, zulotxo horretatik soka bat sartuta, lepoko moduan erabiltzen zituztela uste dute ikertzaileek. Inguru horietan egindako ikerketek argi utzi dute, bestalde, harpeak tribuen topaleku zirela, eta eza-gutzak eta tresnak trukatzeko erabiltzen zituztela.

Isturitze harpean, irarlan ederra dago: hiru elur-orein ikus daitezke, bata bestearen gainean. 17.000 urte baino gehiagoko irudiak dira, eta perspektiba ongi landu zuten. Ikertzaileek marrazki mugikorra zela uste dute. "Egun batean, arkeologoek suaren arrastoa aurkitu zuten; eta beraz, sua piztuta zutelarik argituko zuten irarlanari; sua mugitzen zenean, elur-oreinak ere mugitu egingo ziren, mugimendua ematen baitzion suak irarlanari", azaldu digu Jean Marc Durruty, harpeetako gidariak.

Otsozelaian, berriz, formazio ikusgarriak dituelako katedrala deitzen dioten gelan, bada organo natural bat ere, estalaktitak joaz txalapartaren antzeko musika sortzen duena. Estalaktitak duen luzeraren eta loditasunaren



arabera, soinua era batekoa edo beste-
koa da. Badira oihal itxura duten estalaktita ikusgarriak ere.

Ikerketek aurrera jarraitzen dute, eta orain arte aurkitutako arrastoak Paris ondoan badituzte ere, hemendik aurrerakoak Hazpamen geratuko dira,

han ari baitira aztertzen. Gaur egun, koben kanpoko aldean dagoen museoan, pieza originalen kopiak daude ikusgai.

50.000 bisitari izaten dituzte urtero Isturitzen eta Otsozelaian, eta ez dituzte gehiago hartzen, harpeak hondatze-ko arriskua dagoelako.

atzeko atetik



Eva ARGIÑAÑO

SUKALDARIA

Bai, betidanik izan dut oroimen txarra eta hortaz, urriak dira haurtzaroz ditudan oroitzapenak... are gutxiago eskolari lotutakoak. Hala ere, gogoan dut klaseko argiena ez nintzelani. Argalena bai akaso, gaizki elikaturiko neska baten itxura bainuen. Ahoa nabarmena nuen, begiak eta sudurra galantak, eta jakina, horiek aurpegi estu hartan kokatzean, sudurrak berebiziko protagonismoa hartzen zuen. Ez sudurrak soilik, baita usaimenak ere. Gogoan dut jendea usaindu nahian edonoren atetik ibiltzen nintzela, eta oraindik ere, sudurzuloetan gordeak ditut eskolako usainak. Beldurrak sorrarazten duen izerdiaren usaina (irakasleek beldurtu egiten ninduten), mojen usain garratza, edota komun haiek aireratzen zuten

Gutxien espero duzunean...

gernu eta borragoma usain hura. Usaimen arazo horiek markatu zuten nolabait nire haurtzaroa, baita nire egunerokotasuna ere.

Urteak pasatu ziren eta nerabezaroa heldu nintzenean ez nuen artean ko-adrilarik. Horrela iritsi nintzen garai hartako Batxilergoko 4. mailara. Gogoan dut klaseira irakasle berri bat iritsi zeneko eguna. Gainontzeko irakasleak baino gazteagoa zen. Ezberdina. Arbelera hurbildu eta bere burua aurkeztu zuen. Hegoaldetik zetorren, ez dakit zehatz-mehatz nondik, eta bere izena arbelean idatzi zuen: AGAPITO. Barrez lehertu ginen izen hura irakurtzean. Hala ere, gizon horrek asko lagundu zidan. Nire arazoetaz jabetu eta niri bost minutu eskaini ostean, zortzi urtetan inork ezin izan zuena ulertarazi zidan. Zein garrantzitsua den gauzak ikuspuntu ezberdinetatik azaltzea, izan ere, denok ez baitugu bizitza modu berean ikusten.


Urte hartan grebak eguneroko ogi bihurtu ziren, lehenengo ikasleek eta geroago, irakasleek bultzatutakoak. Klasean edozein jolas zitzaigun balia-

garri: "zaldi" saltoa, xakea, karta jokoa... Urte hartan ohartu nintzen jolastea zeinen gustuko nuen, eta jolasak eguneroko bizitzan duen garrantziaz konturatzen lagundu zidan. Klasekideok ez genuen ikasle on talde bat osatzen, baina harmoniarik ez zitzaigun falta ongi pasatzeko. Hala, greba egun batean, Ordiziako igerilekura joateko plana egin genuen. Nik ez nuen bainujantzirik, hori banekien, baina nola edo hala zerbait egin behar nuen. Armairuetan begira hasi eta nire ahizpa zaharrena-ren bikini bat aurkitu nuen. Zaharra zen, lore gorri handi batzuekin. Beheko aldean belaunetarainoko galtza moduko batzuk zituen, eta goiko aldean, aldiz, bularrak ondo markatzen zituen kazola itxurako sujetadorea. Horrela sartu nintzen igerilekura. Ikaskideek, hasiera batean, harrিতa begiratu zidaten, baina ez ninduten inola ere lotsarazi. Urte hartan, talde baten partaide nintzela sentitu nuen. Horixe nahi nuen, eta halaxe sentitu nuen. Eta gaur ere talde baten parte naizela sentitzen dut. Horregatik, urte hura sozialki oso emankorra izan zen niretzat.



Spainiar estatuko 10 eta 13 urte bitarteko gaztetxoek urtean fikziozko zortzi liburu irakurtzen dituzte batezbeste. Horien artean daude eskolan irakurtzera behartzen dituztenak. Mutilek neskek baino gehiago irakurtzen dute adin tarte horretan eta denek abentura liburuak dituzte gustukoak.

Iturria: Galtzagorri elkartearen web orria.



Euskaldunon arbaso izan ziren Cro-magnongo gizakiek animalien hezurretan grabaturiko kalkuluak egiteko tresnak aztertzen dira liburuan. Aritmetikaren hastapenak izan al ziren haiek?

Horrekin batera Europa osoan hedatu zen kalkulatzeko sistema hogeitarra agertuko da, eta euskaldunek kaukasiar herriein izan omen zituzten harremanak azalduko dira. Ilargi-egutegia, Paleolitoan denbora neurtzeko erabilitako sistema, aztergai du, eta baita euskal errotarien sistema numeriko-grafikoa ere. Azkenean, sarrietan eta kortetan erabilitako sistema zazpitarra megalitismoarekin loturik agertuko da, eta euskal zenbakien eduki sinbolikoa ere ikusteko parada izango duzu, irakurle. Euskal curriculum baterako ezinbesteko materiala, beraz.

Bizitzaren zientzietan jakin-mina duen edonoretzat lagun-tresna izan nahi du hiztegi entziklopediko honek, baina bereziki Batxilergoko “Biologia eta Geologia” eta “Biologia” ikasgaietarako aproposa da. 240 hitz-sarrerekin batera, horien ingelesezko bertsioa eskaintzen da, irakurleak Interneten eta lan zientifikoetan nahitaez aurkituko dituen terminoekin treba dadin. Definizioak zehatzak eta laburrak dira, eta erreferentzia gurutzatuak ugari.

Azaleko irudia fosil bat da, eta gure planetan duela 2.000 milioi urte bizi izan zen zelulabakarreko alga berde-urdin bati dagokio. Egitura kimikotik bizi konplexuetarako ibilbidearen lekukoa da eta biologiak pizt dezakeen lilura adierazten du.




**ZURE LIBURUDENDAN
SALGAI!**

Aurkitzen ez badituzu, eskatu gure web orrian:

www.gaiak.net

X. Hilek Hasi Udako Topaketak prestatzen



PSIKOMOTRIZITATE praktika Haur Hezkuntzan: Pedagogia koherente baten bila

Azaroaren 28an DONOSTIAN

Ordua: 9:30etik 18:30era

Tokia: Irakasle Eskola

- Alvaro Beñaran. Pedagogia terapeutikoan lizentziatua. Aucouturier praktika psikomotrizista eta Bergarako Psikomotrizitate Eskolako irakaslea.
- Antzuolako Eskolako esperientzia.
- Carles Font. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea. Psikomotrizitatean aditua.
- Mahai-ingurua: Carles Font eta Alvaro Beñaran.

Azaroaren 29an DURANGON

Ordua: 9:00etatik 14:00etara

Tokia: Musika Kontserbatorioa

- Elena Herran. Psikomotrizista eta psikologoa. EHUKo irakaslea.
- Antzuolako Eskolako esperientzia.
- Carles Font. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakaslea. Psikomotrizitatean aditua.

Izena emateko epea: azaroaren 21a